

ELKARRIZKETA: PHILIPPE LEMENU • EKARPENA: IKASLE
ETORKINAK HAUR HEZKUNTZAN • EKARPENA: LIBURUEN XARMA
• GALDEIDAZUE: REBEKA ARRARAS • ASISKO URMENETA

hh
hik hasi

105

5 EURO • 2006KO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Euskal curriculum
herritarren ikuspegitik

aurkibidea



8
gaia

EUSKAL CURRICULUMA HERRITARREN IKUSPEGITIK

Udalbiltzak bultzata, herritarrek euskal curriculumari egindako ekarpenak bildu ziren urtarilaren 28an Donostian. Herri eragileek ere badute zeresana gazteen heziketan eta konpromisoa hartzeko prest agertu dira.



16
elkarrizketa

PHILIPPE LEMENU

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak antolatutako jardunaldietan hartu zuen parte psikologo kliniko eta psikomotrizista belgikarrak. Nerabeekin egiten du lan eta haien heziketa, arazo eta kezkez aritu gara.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKAL CURRICULUMA HERRITARREN IKUSPEGITIK

16 elkarrizketa

PHILIPPE LEMENU

24 ekarpena

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (I)

Amaia Sesma, Pilar Hernandez eta Ima Ortega

27 esperientzia

Lagunak Iparraldean eta Hegoaldean

Lasarte-Oriako Landaberri ikastola eta Donibane Garaziko eta Izurako ikastolak eta kolegioa

30 ekarpena

Liburuen xarma irakasleen gida

32 galdeidazue

Rebeka ARRARAS

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Jaime Altuna

42 Atzeko atetik


Asisko Urmeneta

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko, Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM • Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Euskal curriculum, herritarren ekarpena Kursalean (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-I-9). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

editoriala otsaila

Eraberritu edo porrota, egoera horretan gaude



Gazteak etorkizunerako prestatzeko, aldaketak egin behar dira heziketa eremuan. Une ezin hobean gaude memento honetan. Izan gaitezen ausartak.

Lurrikara dator. Baina ez zoritxarrekoa eta ondorio txarrak utziko dituen, alderantziz baizik. Bai, euskal curriculumak bazterrak mugitzeaz gain, sako-neko oinarriak ere astinduko ditu. Edo hala beharko luke.

Eguno hezkuntza eredia ez dago oraingo eta etorkizuneko beharrei begira diseinatu. Ez die gaurko gazteen beharrei erantzuten eta ez ditu etorkizunerako prestatzen. Informazioaren eta komunikazioaren gizariek beste gaitasun batzuk eskatzen ditu, eta beraz, egokitu beharra dago. Daukagun sistema edo eredia krisian dagoela esan daiteke, eta horren aurrean bi aukera ditugu: bata, oinarri sendo batzuk jarri eta krisia gainditzea; eta bestea, oraingo ereduarekin segitzea eta gai-xorik gelditzea.

Euskal curriculumaren inguruan abiatu den prozesuak aldaketa hori egiteko, egokitze, gaurkotezko eta eraldatzeko aukera ematen du. Aukera ho-

ri baliatzea da orain gakoa, batez ere oinarri sendo batzuk ezartzeko. Hasteko, ikasleen eskubideak errespetatuko dituen egitura bat behar dugu. Neska-mutilek subjektu aktiboak izan behar dute. Ahotsa badute, zer esana ere bai; entzun egin behar zaie. Bigarrenik, modu integralean hezi behar ditugu. Eguneroko bizitza ez dago atalka banatuta, eta ikasgaien banaketa hori artifiziala da. Ez dugu ahaztu behar Fisika irakas-ten ari garenean ere hezten ari garela, Fisikako edukiez gain beste hainbat gauza lantzen direla zuzenean edo zeharka. Jakintzagaiak beraiek baino garrantzitsuagoak dira gazteen gaitasunak. Bizitzan beharrezkoak izango dituzten trebeziak lantzea da ardatza. Ikasgaien egungo banaketak ez dauka zentzurik. Ez dira lehenengo ikasgaiak eta gero konpetentziak; baizik eta biak nola uztartu ikuspegi hezitzailearekin.

Horrek esan nahi du beste modu batera irakatsi eta hezi behar dela. Eta

horretarako ere prestatu egin behar da. Hezitzaileen prestakuntzak, bai hasierakoak eta bai etengabekoak, izugarrizko garrantzia du, eta eredu horrek ere astindu eder bat behar du. Bestela, formazio ereduak aldatzen ez badira, nola eta zertarako prestatuta aterako dira Irakasle Eskolako gazteak? Ezinbestekoa da behar berrietara egokitzea.

Garaiotan behin eta berriz, han eta hemen, errepikatzen da heziketa ez dela eskolaren zeregina soilik, familia, hezkuntza ez formala eta gizariek beste hainbat arlo ere hor daudela, eta denen erantzukizuna dela gazteak prestatzea. Teoriatik praktikara pasatzen hasi gara, euskal curriculumaren prozesuan herri eragileen ekarpenak bildu baitira.

Euskal curriculumak heziketaren ikuspegi aldaketa dakar, eta horrek sistema osoan aldaketa sakonak eskatzen ditu. Ausartak izan behar dugu eta aldatzen hasi. Bestela ez dugu krisia gaindituko. Denon esku dago.

kronika

Baigorrik ikastola izango du datorren ikasturtean: 15 ikasle eta irakasle batekin abiatuko da, eta Herriko Etxearen inolako laguntzarik gabe. Baigorriko auzapezak, Jean Baptiste Lambertek, ikastolako ordezkariekin bilduta jarrera hauxe agertu omen zuen: euskara ikasteko ez dela ikastolarik behar, eta horren froga dela bere etxean denek dakitela euskara, ikastolatik pasatu gabe. Baigorri ikastola sortzeko adinako eskaera bada, ordea: Seaskak lortu du ama eskola abiarazteko haur kopurua. Ikastolak ez du beraz Herriko Etxeko gelarik izango eta pribatu baten egoitza alokatu beharko du. Dirua biltzeko kanpaina otsailean bertan abiarazteko asmoa du ikastolak.



EAEko sare publiko-rako baliabide gehiago eskatu dituzte ELAk eta EILASEk

Eusko Jaurlaritzak azken urteotan aurrekontu partida eta irakasle kopurua ez dituela handitu esan zuten bisindikatuek egindako agerraldi publikoan. Eta horrek eragin zuzena omen du ikastetxeen egunerokoan eta eskaintzen duten hezkuntzaren kalitatean. Irakaskuntza publikoak dituen gabezien inguruan, informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat jarri dute martxan bisindikatuok. Zazpi dira kanpaina honen bidez egiten dituzten eskaerak; horietan, gehien sakondu nahi dituzten arloak langileen behin-behinekotasuna eta prekarietatea eta hezkuntzara bi-

deratutako aurrekontu partida dira. ELAko kide Xabier Expositoren hitzetan, “egoera aldatu ezean, ez dugu baztertzen mobilizazioetara deitzea ere”.

Irakasle plantillaren % 25 behin-behinekoak dira

ELAko kide Xabier Expositoren esanetan, egun ia 21.000 irakasle behar ditu sare publikoak, eta horietatik 16.000 inguru dira finkoak. Alegia, sare publikoko plantillaren % 25 inguru behin-behinekoak dira, eta urterik urte ikastetxez aldatzen egon daitezke. Horrek eragin zuzena dauka hezkuntza kalitatean, Expositoren ustez: “ikastetxeen egunerokoan eragiten du, ezin duelako langile taldea finkatu eta horrek proiektuak aurrera ateratzea zailtzen duelako”. Jaurlaritzak irakasle kopurua geldirik duela azpimarratu zuen, eta azken urteotan ez omen zaio joera hori aldatzeko asmorik ikusten.

Hezkuntzan Barne Produktu Gordinaren % 3 inbertitzea

Europako herrialdeek, batez beste, diru horixe bideratzen dute hezkuntzara: BPGren % 3. Eusko Jaurlaritzari ere kopuru horretarantz hurbiltzeko eskatu zieten ELA eta EILAS sindikatuek. Horien esanetan, azken 10 urteotan behera egin du Jaurlaritzak emandako diru sailak.

23 urte geroago... B eta A ereduen frakasoak erabatekoa da eta D ereduaren frakasoak galanta azaldu da. Beraz, eredu bakarria behar dugu, D eredia indartu eta beste biak, A eta B, desagertu.

Felix Etxeberria



Iparraldean irakasle postuak murriztuko dituzte datorren ikasturtean

Akademiako Batzorde Tekniko Parekideak urtarrilean Bordelen egindako bileran, Akitaniako hurrengo ikasturterako baliabideen esleipena egin zuen. Pirinio Atlantikoetako baliabideen banaketa erabakitzeak batzordeak antolatuko dira.

2006-2007 ikasturterako, Pirinio Atlantikoetako Departamenduan, lehen zikloan 300 ikasle gehiago izango direla aurreikusi dute, baina igoera horrek ez du irakasle postuetan eraginik izango. Bigarren zikloari dagokionez, 400 ikasle gutxiago izango dira eta, ondorioz, 48 irakasle lanpostu gutxiago izango dira Departamenduan. Horrez

gain, liburutegietan lan egiten duten bi dokumentalista postu ere kenduko dituzte: bata Donibane Garaziko Nafarroa lizeoan, eta bestea Biarritzeko Ostalaritza lizeoan.

Eskolak okupatu dituzte, irakasle postu eske

Eskola publikoetako gurasoek hainbat ikastetxe okupatu dituzte, datorren ikasturtean irakasle postuak murriztuko dituztela salatzeak. Esaterako, Aiherrako eskola (Nafarroa Beherea) eta Ziburuko Marinela eskola (Lapurdi) hartu dituzte gurasoek. Bilkurak egin dituzte, berriz, Nafarroa Behereako Arberatze, Arrue eta Arbotiko eskoletan zein Zuberoako Etxarriko eskolan. Eskolako gurasoek, irakasleek eta herrietako auzapezek gaitzetsi egin dute akademiaren erabakia, haurrentzako hezkuntza kalitatea kolokan ezartzen duela-eta.

Aiherrako eskolan, kasu, 47 haur daude; iaz irakasle postu erdi bat kendu zieten, eta datorren ikasturterako beste irakasle postu erdi bat kentzekotan dira. Hala gertatuz gero, gela batean 26 haur izango dira, haien arteko adin tartea bost urtekoa delarik. Gurasoek ez dute ulertzen nola egin daitezkeen lanak hezkuntza kalitatea bermatzeko eta aldi berean postuak kendu.

Irale (EAEko irakasleak euskalduntzeko programa) berriro nahian, Eusko Jaurlaritzak iritzia eskatu die atzerriko adituei. Carolyn Benson eta Durk Gorter soziolinguistak (biak ere hizkuntza gutxituetan adituak), ehun eragile ingururekin bildu dira, haien ekarpenak jasotzeko, Jaurlaritzak egungo egoeraz egin duen diagnostikoaren zirriborroa osatu asmoz. Besteak beste, erakunde hauekin hitz egin dute Benson eta Gorterrekin: EAEko Eskola Kontseiluarekin, hezkuntzako zenbait sindikaturekin, EHUrekin, Deustuko eta Arrasateko unibertsitateekin, Ikastolen Konfederazioarekin, Irale eta EGA programan lan egin duten teknikariekin eta irakasleekin. Orain adituek EAEko hezkuntza sistemaren euskalduntze prozesuari buruzko txostena egin beharko dute, hilabete honen barruan helarazteko asmoa dutelarik.

GAIA

Euskal curriculumak *herritarren ikuspegitik*





Euskal curriculumuma oso modako bihurtzen ari den kontzeptua da. Haatik, moda baino zerbait gehiago izango da. Bai, sumatzen da. Zerbait potoloa eta sakona izango da. Ikusi besterik ez dago ikastoletan, eskola publikoetan zein erlijiosoetan nola heldu dioten. Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma aztertzen, eztabaidatzen eta ekarpenak egiten hasi berriak dira.

Udalbiltza ere herri eragileekin bildu da eta haien ekarpenak jaso ditu, eurek ere badutelako zeresana gazteen heziketan. Eskolaz kanpoko gizarte eragileen ekarpenak ezagutzea komeni zaigu, curriculumak ikuspegi integrala izan dezan.

G

Udalbiltzak herritarren ekarpenak bildu ditu

Ikastetxeetan ez ezik, gizartearen ere ari dira euskal curriculumuma eztabaidatzen. Udalbiltzak gai horren inguruko eztabaida soziala bideratzeko konpromisoa hartu zuen eta "Euskal curriculumuma. Herritarren ekarpena" izeneko prozesua eraman du aurrera horretarako. Iazko udaberrian Euskal Herriko sektore anitzeko 320 eragile ingururekin harremanetan jarri zen eta haien ekarpenak bildu eta landu dituzte. Urtarilaren 28an Donostiako Kursaalera bildu ziren 300 lagunek ekarpen horiek ezagutu, eztabaidatu eta hausnartu zituzten, eta baita berriak egin ere. Orain, horiek denak liburu batean bildu eta argitaratuko ditu Udalbiltzak, eta era berean, ekarpen horiekin euskal curriculumuma aberasten saiatuko dira.

Denak galdera bati erantzuten saiatu dira: zein da arlo bakoitzean 16 urteko gazte batek bereganatu behar dituen kontzeptuak, abileziak eta balioak? Landu diren arloak 10 izan dira: norberaren garapenerako hezkuntza, ingurumen hezkuntza, hezkidetza, kulturarteko hezkuntza, euskara, historiaren irakaskuntza, eskubide sozialak, parte-hartzea, komunikabideak eta internazionalismoa eta garapenerako hezkuntza.

Herri eragileek orain arte hezkuntza arloan izan duten parte-hartzea oso desberdina da. Batzuek erlazio estua goa dute eta hainbat ekimen eta proposamen eraman dituzte aurrera. Hezkuntzari buruzko hausnarketak egin izan dituzte eta material didaktikoa sortu ere bai. Hezkidetza, ingurumen hezkuntza, garapenerako hezkuntza, kulturarteko hezkuntza, euskara eta aisialdia arlokoak izan dira hezkuntzara gehien hurbildu direnak. Aldiz, internazionalismoak, langile mugimenduak, eskubide sozialen aldeko eragileek, komunikabideek eta abarrek hezkuntzari buruzko hausnarketa espezi-

fiko gutxi egin dute eta zenbaiti kostatu egiten zaio hezkuntzaren gaineko gogoeta egitea.

Edonola ere, zailtasun gutxiago edo gehiago somatu, denak euskal curriculumuma sortzeko prozesuan parte hartzeko prest agertu dira.

Elkarlanak jarraitu behar du

Lehenengo aldiz egin da horrelako lan bat, hau da, hezkuntzari buruzko hausnarketa herritarrekin eta herri eragileekin. Prozesua aurrera eraman ondoren, gainera, argi gelditu da euren parte-hartzea funtsezkoa dela hezkuntza prozesuan. Herri eragileek eginkizun garrantzitsua dute belaunaldi berrien heziketan, eta beraiek horren jakitun dira. Heziketa formalaren eta ez-formalaren arteko batasuna behar dela diote, eta bigarren arlo horretan zeresan handia dutela.

Horregatik, Udalbiltzak hezkuntzarekiko ardura izaten jarrai dezaten eskatu die herri eragileei. Eta horrekin batera, ikastetxeekin eta unibertsitateekin dituzten loturak estutu ditzaten ere bai. Hezkuntza eragileei, berriz, zera eskatu die: euskal curriculumuma sortzeko prozesua bururaino eramatea eta guztien artean berau aplikatzeko estrategia bateratua eta nazionala eraikitzea.



NORBERAREN GARAPENERAKO HEZKUNTZA

Norberaren garapenerako hezkuntzaz hitz egiten dugunean, sexualitateaz, osasunaz, kontsumoaz, drogez, aisialdiaz... ari gara. Pertsona gisa garatzeko beharrezkoak diren elementuak dira, eta horrexegatik, hezkuntzan aintzat hartu behar dira. Orain arte zeharlerro moduan landu izan dira eskola curriculumean. Orain euskal curriculumak konpententzia gisa lantzea proposatzen du; hau da, lehen zeharlerro zena hezkuntza prozesuaren ardatz bilakatzea, eta irakasgai zena orain zeharlerro izatea.

Norberaren garapenerako hezkuntzaren barruan lau gai sakondu dira eta bakoitza lantzeko proposamenak ere bildu dira.

Sexu hezkuntza

Sexu hezkuntzak bi ardatz izan behar ditu: informatiboa (kontzeptu fisiko eta soziala) eta orientatiboa (nola lortu bizi kalitate hobea). Oso garrantzitsua da gazteak informatuta egotea eta horretarako baliabide askotarikoak ematea. Hori izangolitzateke ikastetxe-

etan egin beharrekoa. Eta horretarako, gazte eta nerabeek eragile aktiboak izan behar dute, metodologia aktiboa erabili behar da.

Drogen inguruko hezkuntza

Euskal curriculumak, drogen inguruko hezkuntzari dagokionez, prebentzioa hartu behar du oinarritzat. Prebentzioa drogak dauden gizarte batean droga-menpekotasunik gabe bizitzen ikastea da. Beste modu batera esanda, drogen erabilpena edo gehiegizko erabilpena saihesteko, kontsumoa gutxitzeko edota atzeratzeko diren neurriak aztertzea. Osasunaren ikuspegitik, garrantzitsuagoa da prebentzioa tratamendua baino.

Prebentzioa modu jarraian egin behar da, era sistematikoan. Eta ikastetxeak leku aproposak dira horretarako; alde batetik, gizarteko partaide guztiak bertatik pasatzen direlako, eta bestetik, helburua heziketa delako, giza neurrietan eta neurri teknikoetan oinarrituta. Prebentzio hezkuntza horretan, hezkuntza formalarekin batera, ezinbeste-

koak dira guraso, gazte eta eragileen parte-hartzea.

Osasunerako hezkuntza

Azken garaiotako berrikuntza garrantzitsuetako bat da eta gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da.

Osasunaren hezkuntza antzinako praktika bat da, baina aldatu egin da ideologikoki eta metodologikoki, osasunaren ikuspuntua bezala. Lehen osasuna gaixotasun gabeko egoera zen, eta orain ongizate psiko-fisiko-sozialarekin lotzen da.

Beraz, hezkuntzak garatu beharreko ekintzak bizi eredu osasuntsu batera bideratuak egon behar dute, indar hartu duen prebentzio ikuspuntutik. Alde batetik, osasun arazoak saihesten ikasi behar da, arrisku egoerak kontrolatu eta horien ondorioak ekidinez. Eta bestetik, osasuna promozionatu behar da, hots, pertsonen gaitasunak eman behar zaizkie bizi eredu osasungarriak lor ditzaten.

Osasunerako hezkuntza heziketa prozesu bat bezala proposatzen da, non ikasleek norbanakoaren eta taldearen defentsa eta promoziorako hainbat eduki, jarrera eta ohitura jasoko dituzten. Hau da, ikasleak arduratsu bihurtzea, osasunarekiko jarrera positiboak garatzea eta ahalik eta bizi eredu osasuntsuena izatea lortu nahi da.

Aisialdirako hezkuntza

Aisialdirako hezkuntzaren bitartez bizitzaren idealak eta balioak landu daitezke, gizartea eraldatu eta alternatiba berriak sortuz.

Oso garrantzitsua da norbanakoaren jarrera jorratzea: astialdia libreki bizitzea, norberak nahi duena aukeratuz. Plazera lortzeko adierazpen libre eta sortzailea izan beharko du, ahalegina eskatzen duena. Zentzuduna izan behar du eta oreka bilatzeko baliagarria.





Hezkidetzaren ikuspegitik nolakoa izan behar du euskal curriculumak herri eragileen ustez?

- Integrala: hezitzen, prestatzen eta errezikatzen lagundu eta bultzatu behar du.

- Eraldaketarako bitartekoa izan behar du.

- Sexuen arteko erlazio berriak sortzen lagundu behar du.

- Euskal emakumeek bizi duten eta historian zehar bizi izan duten gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera desberdintasunei aurre egin behar die.

- Euskal emakumeen ezaugarri bereizgarriak ikertu eta landu behar ditu.

- Emakumeen presentzia, erreferentziak, eredu anitzak eta parte-hartze soziala (kulturan, zientzian, politikan, eguneroko bizitzan...) berreskuratu behar ditu.

- Emakume eredu desberdinak erabili behar ditu adibideetan, irudietan... edozein eremu edo funtziotan.

- Ezkutuko curriculumaren garrantziaz jabetu eta horren lanketa eta aldiro horren ebaluazioa egin beharko luke.

- Balioen eta jarrerren banaketa azaldu beharko lituzke eta aukeraketa

HEZKIDETZA

pertsonan dagoela erakutsi, eta ez jendarte patriarkalak mailakatzen eta hierarkizatzen dituen elementuetan.

- Baliabideak bilatzerakoan ondo aukeratu behar dira azterketa sakon bat eginez: lanaren banaketa sozial eta sexuala eszenifikatzen dituzten liburu zein kontzeptuak saihestu, eduki sexistak dituen edozein materialen bazterketa ziurtatu eta parekidetasunean oinarritutakoak erabili.

- Hizkuntzaren ezaugarri sexistak aztertu eta kritikotasunez horiek aldatzeko lanketak egin, gerora hizkuntza egokia eta sexismorik gabea bultzatzeko.

- Hezkidetzak bultzatu eta bermatuko duen metodologia parte-hartzailea behar du bere baitan.

- Hezkidetzak derrigorrezko irakasgaia izan behar luke. Irakasgai berri bat bermatu beharko luke euskal curriculumak: parekidetasunerako baldintzak azalduz, emakumeen zapalkuntza agertaraziz, desberdintasunak sexuak soilik markatzen dituela azalduz...

- Gai honekiko hausnarketa eta eztabaidak sustatu behar ditu etengabe euskal curriculumak hainbat modutan: soilik zehar lerro gisa, irakasgai espezifiko moduan eta baita zehar lerrotasunez, tutoretza orduak erabiliz...

- Genero begirale funtzioa duen pertsona egotea proposatzen da, bai euskal curriculumaren sortze prozesuan eta baita sortu ondoren jarraipen zuzena egiteko.

INGURUMEN HEZKUNTZA

Orain arte egin dena ikusita, euskal curriculumari begira, 16 urteko gazte batek zera behar luke:

- Ingurune soziala eta naturala elkarri lotuta daudela ulertu.

- Hazkunde eredu bakoitza bere ondorioekin lotu.

- Munduko egungo sistema ekonomiko nagusiak nolako desberdintasunak sortzen dituen ulertu, eta baita horrek ingurumenean dituen eraginak ere.

- Euskal Herriko ingurumen arazo nagusiak ezagutu, horien kausak eta ondorioak eta gatazka konpontzeko eragileak nor diren.

- Ekosistema kontzeptua gure gizarteari aplikatuta ulertu, eta lehen-gaien eta hondakinen joan-etorriak ezagutu.

- Euskal Herriko ekosistema desberdinak ezagutu, eta bakoitzean bizi diren animaliak eta landareak ere bai.

- Gizakia ekosistemako zati dela ulertu.

- Gizakiak historian zehar Euskal Herriko ingurumenearekin izan duen erlazioa ezagutu.

- Baliabide naturalen zikloak ezagutu, gizakiak esku hartzen duenean zein ez duenean.

- Era batera edo bestera ingurumenearen defentsan lan egiten duten taldeak, erakundeak eta administrazioak ezagutu.

- Kontsumitzaile arduratsua izateko ezagutza eduki.

- Bizitza maila eta bizitza kalitatea desberdindu.

Kontzeptu horiek guztiak lantzeko hainbat prozedura, jarrera eta balio ere proposatu dituzte.

EUSKARA

Egun, ikasgeletan euskara aspektu formal, egituratik eta literatura lantzen dira batik bat. Hizkuntzaren *corpus*a lantzearekin batera beharrezkoa da *estatusa* ere lantzea. Zentzu horretan, arlo honetako eragileek egin dituzten ekarpenak ikuspegi soziolingustikotik egin dituzte. Hona hemen ekarpenok hiru ataletan:

Euskara irakasgaiko **edukiak**:

- Hizkuntzaren inguruko kontzeptu eta azalpen teorikoen lanketa. Hizkuntza, hizkuntza eskubideak, hizkuntza komunitatea, hizkuntza ordezkapea, elebakartasuna, elebitasuna, diglosia, ofizialtasuna, hizkuntza politika... Aztertu behar da honen guztiaren inguruan non jarri beharko liratekeen lehenetsun nagusiak.

- Euskararen bilakaera historikoa ezinbestez landu beharko litzateke. Batetik, herri honek bere hizkuntzari eusteko egin duen lana eta erabili dituen mekanismoak aipatu behar dira, baina noski, hori erabat loturik dago jasan dugun eta jasaten dugun zapalkuntza linguistiko eta kulturalarekin. Herri honek ordezkapen prozesu bat pairatu behar izan du eta horren gako nagusiak ongi ezagutu behar dira. Garai ezberdinetako aldaketa nagusiak, ordezkapen horren eragileak zein diren, erabili diren metodoak, izan dituzten ondorioak, jarraituak... Beharrezkoa da horien azalpen egoki eta jarraitu bat egitea.

- Euskara batuaz gain, ikasleek beren inguruko euskalkiak ezagutu eta erabiliko dituzte, euskara batuaren ekarpen eta aberasgarritasun gisa.

- Bestalde, sakon aztertu behar da euskararen normalizazioaren aldeko lana eta, oro har, euskararen defentsan egin dena. Euskaldunok nola iritsi gara gure hizkuntza bizirik mantentzera? Nola iritsi gara gainera oraindik gure hizkuntza normalizatua izan dadin aukera zabalik izatera?

Prozedurak

- Hizkuntza eskubideak ezagutuko ditu. Era berean, eskubide horiek urratzen direnean bere kexa edo salaketa non eta nola bideratu jakingo du.

- Euskararen bilakaera historikoa eta hitzunen ezaugarriak sailkatzea.
- EH osatzen duten herrialdeen euskararen egoera deskribatzen ikastea.
- Euskara hizkuntzen munduko mapan kokatzen jakitea.
- Lehenetsunaren arabera, etorkizuneko lan ildoak sailkatzen ikastea.

Balioak

- Euskararekiko atxikimendua bultzatzea.
- Hizkuntza gutxituenganako elkartasuna adieraztea.
- Euskara Euskal Herriko hizkuntza dela sentitzea.
- Beste hizkuntza eta kulturekiko errespetua indartzea.
- Dagozkigun hizkuntza eskubideen jabe izatea.
- Euskararen berreskurapena geure eskuetan dagoela ulertzea, herri mugimenduaren balioaz ohartzea.
- Euskararen alde ospatzen diren jai, mobilizazio eta ekimen desberdinetan beren begirunea eta ahal den neurrian laguntza eskaintzea.



INTERNAZIONALISMOA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

Arlo honetan euskal curriculumari ekarpenak egiten hiru erakunde mota aritu dira:

- 1- Herri pobretuen garapenerako lan egiten dutenak (GKEak).

- 2- Talde internazionalistak.

- 3- Nazioarteko gaien ikerkuntzan aritzen direnak.

Euren ustez, kontzeptu hauek bereganatu beharko lituzke 16 urteko gazte batek:

- Identitate propioa eta aukera berdintasuna.

- Herri, kultura eta zibilizazio desberdinak ezagutzea.

- Inperioa eta kolonizazioa ezagutzea, bai lehengoa eta bai gaur egungoa.

- Munduko sistemak ezagutzea.

- Aldaketaren kontzientzia edukitzea.

- Bidezko eta elkartasunezko merkataritza ezagutzea.

- Globalizazioaren aurrean jarrera kritikoa izatea.

- Komunitateen, herrien, gutxiengoen eta nazioen arteko loturen kontzientzia edukitzea.

- Produktzio ereduaz eta berdintasun ezaz jabetzea.

- Gatazkak ulertzeko eta ebazpenak aurrera eramateko gaitasuna.

Trebeziaren artean hauek azpimarratzen dituzte: parte-hartze demokratikoa, talde lana, autokontrola, informazioaren konparaketa eta kontrastea, analisi arrazionalak egiteko gaitasuna eta erabakiak hartzen dituzten pertsonak eta instituzioak presionatzeko bideak ezartzeko gaitasuna.



HISTORIA

Historiarik ez daukagula entzuten mendeak igaro ostean, zaila da gure ondorengoei zein Historia irakatsi behar diegun erabakitzea. Gainera, Euskal Herrian Historia jorratzen duten talde ugari egon arren, dispartzio handia nabari da. Edonola ere, zenbait irizpide eman dituzte euskal curriculumari begira.

Zer da euskal historia?

Hasteko, euskal historiari hitz egitekoan, euskal kontzeptu hori hainbat modutara defini daiteke, eta kasu honetan, “euskal” hitzak gure hizkuntzan duen esanahi konbentzionala errespetatzea proposatzen dute. Horrela, euskal historia euskarari, euskaldunei eta Euskal Herriari dagokion historia litzaiteke.

Zertarako irakatsi Historia?

Historiaren irakaspenaren bidez lortzeko ikasleari nondik datorren irakastea eta gaur egungo errealitatea ulertzeko gakoak ematea.

Nola irakatsi?

Historia ahalik eta erarik zientifikoenean irakatsi behar da, Historiak hezkuntza integral bat lortzeko daukan gaitasuna baztertu gabe. Hau da, Historia irakasten ari garen heinean, balioen inguruko galderak planteatu daitezke eta planteatu behar dira ikasgela batean. Baina ikasleek erantzun behar dituzte galdera horiek, ez Historiak.

Metodologiari dagokionez, aspaldi bilakatu ditu historiografiak ikerketa gai kantuak, sermoiak, produkzio erak

eta abar. Era berean barneratu beharko ditu irakaskuntzak, berriro ere Historia liburuetan dagoen kanon absolutu moduan irakatsi nahi ez badugu behintzat.

Teorietatik harago, euskal historiaren lan kanonikoak behar dira, eta horiek gabe nekez egin daitezke eskolentarako bertsioak, nahiz hurbilpen batzuk badauden. Halaber eskolan euskal historia gaiak lantzeko materialak (prozeduretarako) falta dira, euskaraz sortutako iturri historikoen (bertsoak, idazle klasikoak...) bereziki profitatu beharrekoak izanik.

Zer irakatsi?

Irakatsi behar den kontakizunak ahalik eta zabalena eta objektiboa izan behar du, baina, aldi berean, argi finkatu behar ditu zein konbentzio eta ikuspegiren arabera eraiki nahi dugun Historia. Herri eragileek proposatzen duten ikuspegia nazionala da, euskalduna. Euskal identitatea gure jendartearen dagoen identitateetako bat izanik (ez bakarria baina bai aski orokorra), berau aintzat hartzeko modukoa kontsidera liteke, eta horrek justifikatuko luke euskal historia irakastea.

Zazpi herrialdez osaturiko gure herria aldarrikatzen dute eta iruditzen zaie hauek badaukatela historia amankomun bat. Inolako konplexurik gabe egin behar zaio horri lekua konbentzioaren inguruko irizpide argien bidez eta Historia diziplinari dagozkion metodo zientifikoaren bidez.

Manex Goiñenexek *Euskal Curriculum: Kultur Ibilbidea* lanarentzat proposatutako curriculum ereduaren ikuspegi europarra proposatzen zuen Euskal Herriko Historia irakasteko ikuspegi onena zelakoan. Zalantzarik gabe egokia izan daiteke zentzu

orokor batean hartuta eta dituen onurak ukaezinak dira. Hala ere, marko orokor egoki bat eskaini dezakeen arren, aro historiko zehatzei begira egokiagoa izan daiteke beste marko espazial batzuk hartzea. Hots, nolabaiteko eredu “misto” bat hautatzea.

Ezin da gure eskoletan irakatsiko den Historia parametro zaharren bidez irakatsi. Gutxienez azken hamarkadetan finkatu diren joerak barneratu beharko ditu gure ikasgaiak eta zalantzarik gabe positiboa litzateke gure eskoletan etorkizun perspektibarekin jokatzea. Gizarte taldeen historia, emakumeena, tokian-tokiko historia, gizarte mugimenduen, eta abar irakatsi beharko dute ikasleek beren adina eta taldearen aukeren arabera.

KULTURARTEKO HEZKUNTZA



Nahiz eta orain arte ezer gutxi landu arlo honetan, irizpideak zehaztuta daude. Garrantzitsua da bertako eta kanpoko jendearen arteko harremanak sendotzea, elkar ezagutzea. Etorkinek gure herria eraikitzen ari garela jakin behar dute, baina ez da nahikoa. Horrez gain, konfiantzazko harremanak sortu behar dira, beraien ere eraikuntza horren zati direla jakiteko. Denon arteko kontratu sozial bat egin behar da eta denok auzolanean aritu.

PARTE- HARTZEA

Parte-hartzearen arloa oso gutxi jorratua dago hezkuntzan, eta egina dagoena, batez ere unibertsitate mailan eta irakasleen ikuspuntutik. Aitzitik, ikasleek balio ugari jaso ditzakete benetako parte-hartzea landuz gero, betiere etika, hiritar portaera (estatu frantziarrear irakasgai dena) eta filosofia uztartzen dituelako eta bizimolde berri bat ere agerian uzten duelako.

Euskal curriculumerako ekarpenak egiterakoan, arlo honetan aritu direnek Summerhilleko esperientzia eta Paulo Freireren irakaspenak hartu dituzte eredutzat, eta honako balioak lantzeko proposamena egin dute.

- Pertsonen arteko harremanak eta gatazkak konpontzeko gaitasuna.

- Entzute aktiboa.

- Pertsona bakoitzaren nitasuna eta ardurakidetasuna batera doaz.

- Horizontaltasuna, hierarkiarik eza irakasle eta ikasleen artean.

- Autogestioa maila etiko edo morelean. Komunitateak bere arazo, kezka, gogo eta pozak partekatzeko eta modu egokian bideratzeko gai izan behar du.

- Komunikazioa eta informazioa bereiztea. Gaur egun komunikazio gutxi eta informazio asko ematen dute ikastetxeek.

- Iritzi sorkuntza: iritzi kritikoa, argudioen erabilpenarekin.

- Komunitatearen balioak onartzea eta errespetatzea.

- Praktikak eta teoriak bat egin behar dute: horrela, ikastetxea irakaspenen eredu eta paradigma bihurtzen da, eta ez kontraesanen habi.

LANGILEAK ETA ESKUBIDE SOZIALAK

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumak proposamenaren hezkuntzaren xedea honako hau dela esaten da: gizakiak gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea da.

Arlo honetako eragileen ustez, definizio horri hirugarren hanka bat falta zaio, eraldaketarena. Izan ere, eraldaketaren hankarik gabe, hezkuntzaren eginkizuna dagoen errealitatean ahalik eta ongien moldatuko diren pertsonak hezitza murriztuko litzateke.

Beste zenbait aldaketa ere egin dizkiote: gizakia kontzeptua (singularrean), herritarak kontzeptuarekin (pluralen) ordezkatu; gizartekide kontzeptuaren ordeza, herrikide kontzeptua ere erabil daitekeela diote; ahalik eta gaitasun gehien garatzea esaldiaren ordeza, osoki garatzea jarriko lukete, alderdi kualitatiboari pisua emanez; eta hirugarrenik, hezkuntzaren xedea Euskal Herrian kokatzea iradokitzen dute.

Beraz, honela geratuko litzateke definizioa: euskal hezkuntzaren xedea herritarrei errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izadikide gisa osoki edo integralki garatu daitezen.

Azkenik, ezkutuko curriculumak kontuan hartzeko beharra azpimarratu dute. Izan ere, gerta daiteke teoriarik baliatu batzuk lantzea gelan (esaterako, elkartasuna) eta, aldi berean, kontrako norabidean doazen praktikak sustatzea (esaterako, ikasle bakoitzak nota bat izatea).



KOMUNIKABIDEAK

Arlo hau aztertu dutenek argi ikusten dute komunikabideek ikuspegi hezitzailea landu behar dutela, eta eskolak ikasketa bereziak txertatu beharko lituzkeela komunikazioaren mundua hobeto ulertzeko.

Zer da gazteek egiten jakin beharko luketena?

- Mezuak dekodifikatzen.

- Ideiak transmititzeko gaitasuna izan behar dute. Komunikazio zuzena zein zeharkakoa menderatu behar du pertsona orok.

- Telebista jauna eta jabe izanik, ikus-entzunezkoak ekoizten irakatsi behar da; medioa menderatu eta eskuragarri izanez, medioa erabili dezakegu.

- Teknologia berriaren eta interneten kasuan, erabilera kontziente bategarako hezi behar dira.

- Hedabideen prozedura ezagutzea komeni da (adibidez: paperezkoan, notizia nola formulatu, garapena, papera, errotatiba...).

- Norberaren komunikazio gaitasuna garatu behar da.

- Ikastetxeek medioak eta azpiegiturak eskaini behar dituzte.



IKASTETXEETAN ERE HASI DIRA

Sortzen-Ikasbatuaz prozesua sare publikoan ari da aurrera eramaten

Euskal Herriko ikastetxe publikoetako hezitzaileek, gurasoek eta gainerako partaideek Sortzen-Ikasbatuaz Hegoaldeko lau herrialdeetan antolatutako mintegietan parte hartzeko aukera izan dute. Mintegi horietan 200 lagunek hartu du parte eta Eskolaldirako Euskal Curriculumari buruzko informazio zuzena jaso dute.

Hurrengo urratsa ikastetxe bakoitzean lantzea izango da, proposamenak eta ekarpenak egiteko. Sortzen-Ikasbatuaz ahalik eta eztabaida bizi eta parte-hartzaileena egin nahi du, eta horretarako egingo ditu langile, guraso eta ikasleentzako aurkezpenak, inkestak betetzeko bilkurak eta abar.

Aldi berean, Sortzen-Ikasbatuaz sare publikoko partaideak elkartzeko baliatu ditu mintegiak. Xedea harreman sarea antolatzea da, prozesua ahalik eta gehien zabaltzeko.



Ikastolak hasi dira euskal curriculumaren proposamena baloratzen



Euskal Herriko ikastolak hasi dira Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren proposamena baloratzen eta hobetzen. Urtarrilaren 21n 300 lagun bildu ziren Donostian Ikastolen V. Biltzarra zela-eta; ikastoletako lehendakariak, zuzendariak eta euskal curriculumaren bideratzaileak, hots, ikastola bakoitzean gaia dinamizatu-ko duten ordezkariak.

Hemendik aurrerako lana bi fase-tan banatu dute:

- 2006ko urtariletik ekainera baloratu eta proposamenak egingo dituzte. Horretarako, inkesta bat erabiliko dute lan tresna moduan. Helburua da-

tu kontrastatuak ateratzea eta proposamenak jasotzea da.

- 2006ko irailetik 2007ko martxora lehenengo fasean jasotako informazioan oinarrituz, Guztiontzako Oinarrizkoa eta Komuna izan-

go den Euskal Curriculumaren proposamena egingo da.

Azken horrekin bat egiten duten ikastolek berau praktikan jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute. Izan ere, ezer gutxi balioko du egindako lanak gero aplikatzen ez bada. Aplikazio hori derrigortua izateko ordezkari borondatez eta atxikimenduz egiten bada, askoz ere eraginkorragoa izaten da. Eta noski, atxikimendua lortzeko, hoberena proposamen bat eza-gutzea, aztertzea eta baloratzea da, egokia den ala ez ikusteko, eta hala bada, hobekuntzak iradokitzeko. Ideia horrekin ekin diote ikastolek lanari.

Kristau eskolak ere buru-belarri

Kristau eskoletan ere prozesua abiatzeaz daude. Batzar nagusietan titular guztiei prozesua nondik nora joango den azaldu diete, eta ikastetxetako zuzendariei ere bai. Otsailaren erdialdera egun bateko jardunaldia egingo dute eta bertan izendutako dituzte ikastetxe bakoitzean gaiaren ardura hartuko dutenak. Hortik aurrera eta Aste Santu bitartean, buru-belarri sartuko dira ebaluazio eta hobekuntza prozesuan.

philippe lemenu

ELKARRIZKETA

Psikologo klinikoa eta psimotrizista

“Gaur nerabeentzat zailagoa da identitatea eraikitzea; badakite zer ez duten izan nahi, baina ez dakite zer izan nahi duten”



“
Eskolak beren lekua
aitortu behar die
bereziki ezer egiten
ez dakiten nerabe
horiei ere, eta
baliagarriak eta
onartuak sentituko
diren egoera batean
sartu behar
ditu
”

Belgikarra da, psikologo kliniko, psikomotrizista eta Asefop-eko Formazio Batzordeko koordinatzailea. Lan egiten duen instituzioak 12 eta 18 urte bitarteko nerabeak hartzen ditu, familia arazoak dituzte eta asko harrera familiatan bizi dira.

Nerabezaroaz mintzatu zen UNEDek azaroan antolatutako Psikomotrizitate Praktikako VII. Jardunaldietan. Identitatea berre-raikitzeko garai konplexu horri buruzko solasaldia da honakoa.

Nerabezaroa gero eta gehiago luzatzen da gaurko gizartean.

Autonomia eta heldutasun aroan sartzea gero eta gehiago atzeratzen ari da, bai. Gaur 19 eta 25 urte bitarteko pertsonak ez dakigu diren edo nerabe zahartuak edo heldu gazteak. Eta paradoxa da, zeren bestalde, gizarte modernoak bizitza gero eta gehiago azeleratza bultzatzen gaitu.

Zergatik ari da luzatzen nerabezaroa? Hasteko, gizartean ziurtasun eza handia delako, eta nerabeek angustia handia dutelako bizitza aktibora, lan mundura salto egiteko, hainbat eragile medio: lana bilatzeko aukera gutxiago dago, eta bestalde, norberaren identitatea aurkitzea zailagoa da egun. Nerabe asko galdera handi baten aurrean daukade: “Zer gertatuko da nire bizitzarekin?”. Aldiz, lehen aita kazetari bazen, zeu ere kazetari bihurtuko zinen, modu natural batean; bidea oso sinplea zen, eta era berean, oso estua, itxia, itogarria. Oraingo arazoa hau da: nerabeek badakitela zer ez duten izan nahi (beren gurasoen berdinak), baina ez dakitela zer izan nahi duten. Eta sortu den hutsune horixe da nerabezaroa luzarazten duena.

Zer ezaugarri dituzte zure zentzora doazen nerabeek?

Instituzio honek 12 eta 18 urte bitarteko nerabeak hartzen ditu. Gazteen ezaugarri nagusia hau da: txikitatik jasan izandako familia sufrimendua pairatzen dute, batzuetan abandonatu egin dituzte, edo behin eta berriz abandonatzen dituzte, eta gehienetan harrera familiatan bizi dira. Beraz, familia desintegrazioaren aurrean gaude. Frantziar sistemak instituzioak baino harrera familiak pribilegiatzen ditu: ordaindu egiten zaie familia horiei nerabeok har ditzaten. Kontua da neska-mutil guztiek ez dutela potentzialik familia batean har ditzaten. Beraz, horietako gazte asko probokaziotan hasten dira, harrera familietan gatazkak eraginez. Eta horrek abandonatua izatearen bizipena dakar, jada ez soilik jatorrizko familian, baizik eta

etengabe familiaz familia joateak eragiten duena.

Zentrora datozkigun gaztetxoetan gero eta gehiago ikusten dugun beste arazo bat bada: tratu txarrak jasan dituzte, fisikoak zein psikikoak.

Nerabezaroan antzinako angustiak ostera bisitan datoz. Haurtzaroko zein angustia bizitzen dira berriro?

Bata norberaren burua galtzearen angustia da, haurtzaroko lehen hilabeteetan oso indartsua dena. Lehen hilabeteetan zeure inguruan aztoramen handia sumatzen duzu eta dena duzu deskubritzeke; hasteko eta behin, zeure gorputza. Nerabezaroan berpiztu egiten da hori, ostera ere norberak bere gorputza deskubritu egin behar duela-ko, berria zaiolako.

Bigarren angustia taldetik banantzean eta bestea galtzean sortzen da. Nerabezaroan bestearengandik banantzen zarela ikustean sortzen den angustia hori berriz ere aktibatu egiten da. Ikasle batek bestearekiko duen dependentzian ikusten da, edota justu aurkako efektuan: gauza guztiekiko loturak hausten dituenean, banatzen denean, guztiaz “paso” egiten duenean, ez zaionean ezer interesatzen.

Beraz, nerabezaroa berraktibazio garaia da: egoeren, gertaeren eta emozioen berraktibazio garaia. Eta mehatxu gisa bizitzen den gauza oro iragane-ko gauza erasokorreki lotuta dago. Haurtzaroko jasadako tratu txarrak nerabezaroan berriz azalera daitezke, askotan oso modu bortitzean eta deskarga askorekin gasteongan.

Galdera existentzialak sortzen zaizkigu nerabezaroan: “nondik nator, nor naiz, nora noa?” Nola bizi dituzte galdera horiek zure zentroan dauden nerabeek?

Galdera horiek dramatikoak bihurtzen dira eurentzat, hauxe planteatzen baitiote euren buruari: desio al ninduten? Guk gure gurasoen irudi argi bat izan genezake, gauza on eta txar guztiekin. Problematikoa imajinarik ez izatea da (zure ondotik martxa egin duen gu-



raso bat edukitzea). Orokorrean, nerabeek beren gain hartzen dute gertatzen zaienaren ardura; familia desegituraketaren arduradun sentitzen dira, eta beren egoeraren arduradun, dauden lekuan egotearen errudun. Gurasoak, berriz, halako zehaztasun gabezia batekin ikusiko dituzte (ez dute irudi argirik). Gainera, gurasoekin sortzen dituzten lokarri horiek suntsiezinak dira. Tratu txar edo biolentzia kasuetan ere, lotura horiek beti jarraituko dute: beti existituko da aitaorde hori, amaorde hori, anaiordea. Eta horrekin aurrera egitea zaila da hain istorio konplexua duen nerabe batentzat.

Identitatea zalantzan jartzen da nerabezaroan, nortasuna berreraikitzeke garaia da. Zer memento bereiz daitezke hor?

Nerabezaroan hiru une bereizten dira, baina ez dira kronologikoki bereizten, aldi berean gertatzen dira.

Lehen mementoa ikusteko da. Nerabeak ikusiko duen lehenengo gauza bere gorputza izango da, sexuala bihurtzen den gorputza. Bere gorputzari behatu eta aldaketak ebaluatzen ditu. Gorputz horretan, bere burua ikusteko aldi honetan, problematika oso bat dago gako baten bueltan: bere buruaz zer irudi duen. Ispilu aurrean denbora emango dute, edo kontrakoa, ispiluari ezinikusia izango diote. Aldi

honetantxe planteatzen dira, hain zuzen, nartzisismo disfuntzioak.

Bigarrena ulertzeko aldia da. Nerabeak zentzua bilatzen du, etengabe. Inguruan duen mundua ulertzen saiatuko da. Garai honetan sinbolizatzea oso garrantzitsua da. Beste pertsona bat bilatu nahiko du bere burua ulertu ahal izateko, eta orokorrean zailtasunak izango ditu beste hori topatzen. Aldi honek oso erreferentzia argia egiten dio aitari, etengabeko probokazioen bitartez (bideratzen zailak direnak).

Hirugarren aldia aukeratzeko aldia da, identitate berri bat hautatzeko garaia. Maila psikologikoan, nerabe askorentzat garai hori bizi ala hil hautatzeko unea da. Bizitzako garai honetan suizidio saiakera asko dago, batzuk gauzatzera iristen direnak, askorentzat erakargarria dena ez baita beti bizitza. Ekintzara pasatzeko aroa da, arriskua bilatzen den aldia, batez ere mutilentzat, motrizitate gaitasunak oso modu indartsuan berpizten baitira. Beraz, badago lehiakortasun bat azkarrena izateko, ahalik eta garaien eskalatzeke, orekan aritzeko.

Adibide batekin azal al dezakezu zer duen erakargarri arrisku egoerak?

Nire zentroan gertatu zen. Gauerdian hiruzpalau gaztekihes egin, eta hiri zeharkatu zuten, autopista gurutzatzen zuen zubi bat topatu arte. Txanda-



ka ba-
randa ertzera
igo, eta zubia zeharkatu behar zuten
(altueratik autopista erdira erortzeko
arriskuarekin).

Ekintza horren atzean zer sinbolis-
mo dagoen hausnartu dut. Hasteko,
gaua da, haurrek angustiak sendoen
bizi dituzten unea (batez ere arazoak
dituzten haurren kasuan, berrakibatutako
egiten direlako iraganeko gauetako ter-
roreak). Nahiago dute, beraz, jaiki eta
elkarrekin egon, irten (hor ere sinbolis-
mo bat bada, lekutik irten, mundua
konkistatzeko nahiaz), eta zubi bat aur-
kitu (eduki sinbolikoa izan dezake, alegia,
mundu batetik besterako pasabidea).
Horrek guztiak sufrimendua dakar,
arriskua, baina baita ere zerbait egitea
lortu izanaren sentsazioa.

Antzina inimiziazko erritoak oso gara-
tuta zeuden, eta gehienetan gairak
beharreko egoerak jada beldurrik ez
zenuela frogatzeko izaten ziren. Ho-
rrek haurtzaroko berraseguratzeko sa-
koneko aktibitateen gairan hausnartze-
ra garamatza, alegia, beldurra gairak-
tutara zuzendutako aktibitateen gairan.
Baina, nerabezaroan hartzen diren
arriskuak oso handiak dira. Esperientzia
horiek gero eta handiagoak izan daitez-
ke, euren kontrako bihurtzeraino.

Mugen beharra dute, beraz.

Hasteko, barne mugak daude, ne-
rabeak berak eraikitzen dituenak, gu-
rasoekiko harremanaren bidez jaso
edo integratu duen horren guztia-
ren arabera. Eta arlo horretan hauxe ikus-
ten dugu: nerabeari diskurtso parado-
xikoak bidaltzen zaizkio, mezu inko-
herenteekin eta erreferente finkorik es-
kaini gabe edo, are gehiago, batere

erreferenterik gabe.

Beharrezkoa da, bestetik, kanpo
mugak zein diren jakitea. Kodeak,
arauak, legeak. Nerabeak galdera bat
egingo du beti: “Noraino irits naiteke
nahi dudana lortzeko?”. Eta hor sartzen
dira borrokan gure mamuak, parez
pare. Eta iruditzen zait egun, nerabeen
zailtasunik handiena hortiraka dauden
mamu ahalguztidun horiei deniei aurre
egitea dela. Nire belaunaldikook ez du-
gu arreta handirik jarri haurrei mamu
ahalguztidunak gairak irakasteko
orduan. Nerabezaroa nire eta beste-
en arteko gatazka aroa da, eta etengabe
ariko da frogan jartzen marko hori: mu-
ga horiek noraino diren trinko eta no-
raino heltzen diren ziurtatu nahian. Mu-
ga horiek berriz sentitu nahiko ditu, eta
hor berraseguratzeko mekanismo batzuk
jazoko dira.

Zein izan daitezke berraseguratzeko mekanismo horiek?

Ihesa, esaterako, berraseguratzeko
sakoneko mekanismo bat izan daiteke,
bestea galtzearen angustia lotuta da-
goena. Etxetik ihes eginez muga horiek
hausten saiatuko da, loturaren sendot-
asuna frogan jartzeko, ikusteko “ea be-
netan nire bila etortzen zaren”.

Edo arriskuan jartzea. Horren atze-
an bi gauza daude: batetik noraino hel-
daitekeen jakin nahi du, baina bestetik
(eta hau ez dugu ahaztu behar, gure pa-
pera horixe delako) inork eusteko eta
geldiarazteko desioa dago hor. Barne-
ratutako mugak falta izatea dago beti
horren atzean, eta barne segurtasun
eza, handia. Alegia, arriskuak hartzeak
ez du beti esan nahi “ez dut mugarik
nahi”, kontrakoa baizik, “jarri mugak”.

Nerabezaroan bada oso arriskutsua
den gauza bat: ekintzara igarotze hori
oso indartsua da, eta esatearen eta sen-
titzaren galeran doa. Gaurko gizarte-
ak, gainera, askoz leku gehiago ematen
dio ekintzari, eta beraz, nerabeak eten-
gabe saiatuko dira arriskuak hartu eta
sentsazio gogorrak bilatzen: alkohola
eta nahasketak, abiadura... Berriz ere
paradoxa baten aurrean gaude: gizarte
honek, batetik, gero eta babes handia-

“
Nerabezaroan
ekintzara igarotze
hori oso indartsua da,
eta esatearen eta
sentitzaren galeran
doa. Gaurko
gizarteak, gainera,
askoz leku gehiago
ematen dio ekintzari,
etanerabeak etengabe
saiatuko dira
sentsazio gogorrak
bilatzen
”



goa nahi du (ikusirik ez dago zenbat aseguru ordaintzen ditugun), eta bestetik garrantzi handia ematen dio errekorra hausteari, zeure burua gainditzeari eta gero eta urrunago iristeari.

Helduen funtzioa nerabe horri marko bat eskaintzea dela diozu. Zer ondorio du marko horrek huts egiteak?

Nerabeek, eta batez ere asaldura handiak dituztenek, zailtasun handia dute espazio korporala eta espazio psikikoa bat eginarazteko, gorputza eta pentsamendua bananduta baleude bezala. Galdetzen diezunean “zergatik sartu zara arrisku horretan?”, ez dute erantzunik. Gehienetan esaten dute “ni baino indartsuagoa zelako”. Eta hor irrika erreal bat badagoela ikusten da, indar handiz sortzen dena, “ez dakitz zergati zaidan” esateraino. Horrek frogatzen du espazio psikikoak, pentsatzeko gaitasunak, huts egiten duela. Eta halakoetan, nerabeen istorioari erreparaturaz gero, ez da harritzekoa izaten ikustea besteek ez dutela nerabe horiengan pentsatu, bestearen objektu izan direla (gehiegikeria eta tratu txarra). Askotan nerabe horiek amaren irudi intrusiboari, inbasoreari lotuta daude. Bazterketari oso lotuta daude eta, identitatearen harira itzuliz, beren existentzia propioari helduta daude, beren identitate propioa dute helduleku bakar.

Nolakoa da gorputzaren eta espazioaren arteko harremana nerabezeroan?

Haurrak bere identitatea inguruarekin lotuz eraikitzen du, eta badakigu zer garrantzia duen inguru horrekin gorputz harremana izateak. Distantzia joko horrek guztiak, gerturatzeak eta urruntzeak, nerabezeroan garrantzia hartuko du. Garai horretan distantzia hartzea da nagusi. Nerabearentzat oso gertu egotea, orokorrean, jasangaitza da. Hurbiltzeak sexu konnotazio bat du (beraz, gorputzak utzi dio haur izateari). Eta terribilea da, zeren gurasoek askotan laztanak egin nahi dizkiete eta utikan bidaltzen dituzte. Gurasoentzat oso konplexua da, zeren nerabezeroan hor egon behar dute (eta asko tematu nahi dut honetan, egon behar dute), baina benetan hor egon gabe. Hori da paradoxa.

Beren espazioa edukitzeko behar hori dela medio, familian soluzio bat aurkitzen dute: beren logela.

Beren tenplua da, proiektzioarako espazio pribilegiatua. Bere gorputz intimitatea, intimitate fisikoa eta psikikoa, bere gelara transferituko du. Horregatik dago halako desordena nerabeen geletan. Guraso askori kosta egiten zaio onartzea nerabeak bere intimitaterako espazio babestu bat eduki behar duela. Dena kontrolatu nahi izaten dute, eta horrek lurraldearen bortxake-

“ Gurasoek izan behar duten jarrera hiru hitzetan biltzen da: entzun, ulertu eta maite. Sakonekoa entzun, alegia, esaten edo egiten duen horren atzean zer dagoen entzun. Nerabeak probokazioaren bidez frogan jarri nahiko du ea gurasoak benetan eutsiko dion, benetan maite duen. Gurasoek etengabe adierazi behar dute, beraz, nerabe horri lotuta daudela. Entzun, ulertu eta maite.

”



ta dakar askotan, baimenik gabe hor sartzeak duen in-
tzezu konnotazio osoarekin. Zeren,
gela baldin bada nerabearen gorputza-
ren errepresentazioa, bere gelan bai-
menik gabe sartzea bortxaketa baten
gisakoa da.

Bere gelan denbora ematea, larritzekoa da ala ez?

Aldi baterako erretiratzeko bada be-
re gelara, ez dugu zertan larritu, hortxe
eraikitzen baitu bere identitate berria.

Baina etengabe jotzen badu gelara,
tarte luzeak emanez, adi jarri behar du-
gu: tristura psikiko senda baten sinto-
ma da. Eta hor oso garrantzitsua da es-
ku-hartzea. Zeren sentzorialki isola-
tzen direnean, euren burbuilan itxiz,
harremanari ihes egiten diotenean eta,
gainera, hitza desagertzen hasten de-
nean, jada alarma gorriak jo du. Euren
baitaratze horretan, fetuaren jarrerak
ere har ditzakete (hautzarora itzultze-
ko nahiaren testimonio argia, baina ba-
tez ere, gatazkarik ez dagoen arora
itzultzeko nahia). Askotan “utzi baka-
rrik!” diote, baina esaldi horren atzeko
mezua beste bat da: “nitaz ardura zaite-
zen behar dut”. Isolamendu hori asko-
tan dei bat da, bila joango gatzaiak
ziurtatzeko beharra duelako.

Gurasoak nerabe izanak dira, aro hori pasea dute, eta aldiz, seme- alaba nerabearoa iristean ez dute jakiten nola demontre jokatu. Nola ulertzen da hori?

Hasteko nerabearoa oso garai zai-

la delako gutako bakoitzarentzat, eta
orduko oroitzapenak ahazteko, baz-
tertzeko, deformatzeko edo berrera-
kitzeko joera dagoelako. Zein gura-
sok ez ote du esan “edade horretan
nik ez nuen halakorik egiten!”. Eu-
ren garai punkak edo heavyak
ahaztu dituzten gurasoak dira, eta
nerabearoaz hitz egin ahal izate-
ko oso garrantzitsua da geure ga-
raiak berriro bizitzea, gogora ekar-
tzea. Beste zenbaitetan seme-alaben
nerabearoak berrakibatzen egiten du
gurasoengan haien nerabearoa. Inoiz
ikusiko zenituen ama-alabak estilo be-
rean jantzita, tankerako ilajearekin, eta
urrutira kasik ezin bereizi nor den nor,
amak neraberantz egin duelako.

Bestetik, gurasoei segurtasun falta
handia sortzen die ulertzen ez dituzten
jokabide batzuk ikusteak. Eta gurasoek
hor zegoen haurra ikusi nahi izaten du-
te. Nerabe horrengandik begirada ken-
du eta “ume hau jada ez da nirea, jada ez
da nik neukan hura” esateko modu bat
da. Egora benetan da zaila, egia baita
guraso askok dena eman dietela seme-
alabei, eta une batean ez dute euren bu-
ruek ezagutzen seme-alabengan. Filo-
sofo bati entzun berri diodanez, seme-
alabak edukitzeko gizakion motiboe-
tako bat honako hau da: hilkorrek gare-
nez, geure buruaren luzapen bat bila-
tzea seme-alabengan. Eta zuk zeure
burua islatuta ikusten baduzu seme-
alabarengan, errazagoa da pertsona
hori onartzea.

Gurasoek zer jarrera izan behar dute nerabearen aurrean?

Hiru hitzetan bil daiteke: entzun,
ulertu eta maite. Inoiz ez dugu behar
beste entzungo, eta garrantzitsua da sa-
konekoa entzutea, alegia, esaten duen
horren atzean zer dagoen entzutea (gu-
rasoei oso zail egiten zaie hori). Nera-
beak “nire onetik ateratzen nauzu” dio-
enean, gurasoak hori dei bat dela ulertu
behar du, “zer maitasun didazun adie-
raztea behar dut” esateko modu bat de-
la. Izan ere, nerabeak frogan jartzen
baitu ea probokazio horiekin loturak
hautsiko diren. Gurasoek etengabe

**“Gurasoen
dimisioak kezkatzen
nau, seme-alaba
nerabeen aurrean etsi
egin dute. Eta batez
ere aitaren figuran
tematu nahi dut. Nire
lanaren helburu diren
gazteek duten hutsune
handiena hori da:
beren aitek ahaztu egin
dutela oraindik paper
bat jokatzeko jarraitu
behar dutela**

”

adierazi behar dute, beraz, nerabe horri lotuta daudela. Entzun, ulertu eta maite.

Eta eskolak, zer egin behar du nerabe horien beharrei erantzuteko?

Ez amore eman. Eskolak, lehenda-bizi, utzi egin behar die nerabe horiei espresatzen. Eta seguru asko hitzeko espresioa ez da aski izango, nerabeak mesfidantza handia baitio hitzari. Badi-ra eskolak aurkitu beharreko beste espresio bide batzuk: sorkuntza, espresio plastikoa, antzerkia zein musika espresioa. Eta beren lekua aitortu behar die bereziki ezer egiten ez dakiten nerabe horiei ere. Garrantzitsua da eskolak nerabeak baliagarriak eta onartuak sentituko diren egoera batean sartzea. Esaterako, zaharrei laguntzeko egoeretan sar ditzake, edo lan munduan praktika moduan, edota eurek babestu nahi duten kausa batean inplikatzeko lagun diezaieke. Garrantzitsua da nerabeak sortzaile izatea, sortze horren bidez onartuko baitiote euren buruari baliagarriak direla.

Zerk kezkatzen zaitu, batez ere?

Batetik gurasoen dimisioak, etsi egin dutela. Egiteko garrantzitsuenetako bat baita marko eta muga garbi batzuk jartzea. Bestetik, arriskutsua da zenbait gurasok nerabeek agertzen dituzten zenbait jokabide gutxiestea, ez hain larritzat hartzea: arrisku jokabideak, elikadura trastornoak, suizidio saiakerak... Suizidio saiakera asko dira aski medikatu gabe daudenak: haurra etxera itzultzen da, eta gurasoek ezer pasa ez balitz bezala egiten dute, ez dago inolako jarraipenik. Guraso eta hezitzaileok ez al ditugu, bada, bidaltzen dizkiguten alarma seinaleak entzuten? Zer eta, garrantzitsuena gurasoek segurtasuna ematea denean, “hemen nago, nigan babes zaitetzke” esan behar luketenean.

Zer gertatzen da gurasoek hainbeste etsi dezaten?

Dramatizatu ere ez da egin behar; lehen ere, beste modu batera baina, ba-



ziren dimititzen zuten gurasoak. Egun zailagoa da gurasoentzat, ez daukatelako guraso izateko erreferentziarik eta asmatu egin behar dutelako nola izan guraso. Jada ez gaude gure aita-amek egiten zutena imitatu beharra dagoen gizarte batean. Gaurko gizartean indibidualtasuna bilatzen da, modu eta estilo propio bat izatea, eta hori lehengoa baino zailagoa da.

Etxeko lanak eta zaintza ez dira baloratu oraindaino. Estatuak ez ote du beste arazo bat izango ez baldin badiu bitartekoak jartzen gurasoek etxeari dedikazioa eskaini ahal izateko?

Bai. Hartu beharreko neurriak asko izan daitezke, eta horien artean legoke amatasun baja luzatzea eta aitatasun bajak hartzeko bideak jartzea. Eta seme-alabak nerabegarora heltzen direnean, erraztasunak jarri behar lirateke gurasoek eurengandik gertu egon ahal izateko, oso memento erabakigarriak direlako garapenerako. Ezin dugu pentsatu jada dena eginda dagoela eta gurasoek garai horretan ez dutela hainbesteko funtziorik. Hor aitaren figuran tematu nahi dut, alegia, guraso betebeharrak bikotean banatu behar dira. Zeren eta nire lanaren helburu diren gazteek duten hutsune handiena hori da: beren aitak ahaztu egin duela oraindik paper bat jokatzen jarraitu behar duela.

“ Lan munduan erraztasunak jarri beharko lirateke gurasoak seme-alaba nerabeengandik gertu egon ahal izateko, oso memento erabakigarriak direlako garapenerako ”

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (I)

Badira ikasturte batzuk berriro ere ikasle etorkinak gure ikastetxeetara heltzen hasi zirela. Irakasleok teoriarik argi daukagu ikasle horiek beste ikasleekin batera ikasi behar dutela integrazioa lortzeko, baina praktikan oztopo ugari aurkitzen dugu integrazio hori bideratzeko. Eta gure kasuan, bi hizkuntza ikasi beharrak ez du lana inolaz ere errazten. Gure artean ikasle horien eskolatzeko eztabaida eta kezka sortu ditu, batez ere ikasleak Lehen Hezkuntzako azken ziklora edo Bigarren Hezkuntzara heltzen direnean.

Beste etapetan zailtasunak agertzen direnez, aipamen gutxi topa daitezke “Haur Hezkuntza eta ikasle etorkinak” gaiari buruz. Egia da Haur Hezkuntza, daukan egiturari eta metodologiari esker, etaparik errazena dela ikasle etorkinak integratzeko; egia da haur txikiak –Haur Hezkuntzako umeak– hobeto moldatzen direla egoera berrietara nagusiak baino; egia da hemen jaiotako ikasleak antzeko egoeran daudela, beraientzat ere eskola egoera berria baita. Baina, hala eta guztiz ere, ikasle atzeritarren integrazioak arreta berezia eskatzen digu, Haur Hezkuntzan ere ahal den modurik hobereanean gerta dadin. Ikasle guztientzat Haur Hezkuntzako etapa ondo, pozik egitea garrantzitsua bada, ikasle etorkinarentzat eta bere familiarentzat are garrantzitsuago, harrera gizartean integratzeko lehen urratsa izan daiteke eta. Horregatik, gure jarrera ezinbestekoa da egoera berri horri aurre egiten diogunean.

Hona hemen irakasleok izan ditzakegun hainbat pentsamendu:



Amaia SESMA, Pilar HERNÁNDEZ eta Ima ORTEGA

GASTEIZKO BERRITZEGUNEKO KULTURA ARTEKO BATZORDEKO KIDEAK

“Nola moldatuko naiz beraiekin hitz egiteko, ez badugu elkar ulertzen?”

“Auskalo nondik etorriko den eta zein izango diren haren ohiturak!”

“Nahikoa daukat hemengoekin, gela ia beteta dudalako, eta orain hau?”

“Zein interesgarria, orain arte ez dut horrelako esperientziarik izan!”

“Jakin banekien familia asko etortzen ari direla auzora. Auzoan dagoena eskolara heldu da”

“Kanpoko haur bat nire gelan kokatu dute, galdetu beharko diot nire lankideari ea berak zer egin zuen tokatu zitzaien”

Galdera horiek denok izan ditzakegu buruan, eta den-denak dira zilegizkoak. Ikastetxe batzuetan tutoreak berak moldatu behar izan du haur berria gelara heldu denean, besterik gabe. Baina gure ustez, ikasle horien egokitzapena, eskolatzeko prestatzea, irakasle guztion lana da, eta denon artean adostutako erabakiak eskatzen ditu.

Dokumentu hau Haur Hezkuntzako irakasleekin izandako topaketa baten ondorioz sortu da. Beste dokumentuetan aurkituko duzuen hainbat iradokizun eta ideia topatuko duzue hemen

ere, baina etapako berezitasuna errespetatzen saiatu gara. Hori dela eta, Haur Hezkuntzan garrantzi handia duten esparruak landu ditugu: familiarekiko harremanak, ikaslearen integrazioa gelan eta hizkuntzen trataera.

Gure asmoa Haur Hezkuntzako irakasleei oinarri bat eskaintzea izan da, ondoren denen artean eztabaidatzeko. Izan ere, ikastetxe bakoitzak erabaki beharko du ikasle horien eskolatzeko eta integrazioa nola bideratuko duen.

Ez daukagu zalantzarik: denen artean adostutako erabakiekin denok ikasten dugu eta gure lana hobeto egiten laguntzen digu.

Ikasle etorkinen familiak eta eskola

Familien igurikimenak (espektatibak) haurrak eskolara eramaterakoan

Pertsona batek emigratzeko erabakitzen duenean “bizitza hobea” bilatzen du beretzat eta bere familiarentzat. Emigratzeko ez da bat-batean hartzen den erabakia, ondo pentsatutako prozesu luzea izaten da. Nahiko arrunta da

hasiera batean gurasoetako bat heltzea herrialde berrira, eta hor nolabaiteko egonkortasuna lortzen duenean erabakitzea familia elkartzeara. Familia elkaritzeko erabakiak esan nahi du herrialde berrian bizitzen jarraitzeko asmoa dutela, nahiz eta jatorrizko herrialdearekin duten loturari eutsi.

Familia etorkinak, eskolara hurbiltzen denean, badu bizitza proiektu berri bat, non ideia nagusia zera izaten den: “gure seme-alabek izan dezatela guk izan ez duguna”. Hori dela eta, familia etorkinentzat eskolak garrantzi handia du, haien ustez hori baita seme-alabentzat arrakasta izateko bidea. Eta ez zaie arrazoirik falta, eskola baita familia integratzeko esparru garrantzitsuenetako bat: eskolan haur horiek aukera izango dute beste kultura eta ohitura batzuk ezagutzeko, eta bere familiaren ingurukoak ez diren hurrekin harremanak izaten hasteko; alegia, herrialde berrian elkarrekin bizitzen ikasteko.

Baina, halere, gurasoek eskolarekin duten jarrerak zerikusi handia izan dezake haien aurretiko ezagutzekin. Norberaren kulturen eskolak bete duen funtzioak baldintzatuko ditu gizarte berrian eskolari buruz izan ditzakeen espektatibak. Edozein pertsonak eskolan izan dituen esperientziaren eta bizipenen arabera hedatzen du erakunde horren inguruan daukan iritzia. Gainera, ez da ahaztu behar herrialde bakoitzak bere eskola eredua, metodologia, hezkuntza sistema dituela. Adibidez, Haur Hezkuntza oso hedatua dago gure gizartean, baina arrotza gerta da-kioke hainbat gurasori. Familia horiek haur txikiak eskolara eramatea horren zabalduta dagoela ikusten dutenean, igurikimen desberdinak izan ditzakete. Izan ere, munduko hainbat herrialde-tan haur txikien heziketa eta zaintza familia barruan soilik egiten da, hala baloratzen dutelako eta haien kulturen era horretan sustraituta dagoelako.

Beste herrialde eta kultura batzuetan komunitatea arduratzen da haur txikien heziketaz. Herrialde horietan seme-alabak ez direla gurasoen jabetza pentsatzen dute, eta inguruko pertsonen badutela zer eskaini, heziketa prozesua ahalik eta aberatsena izan dadin.

Edozein modutan ere, familiek egoera berria dute aurrean, eta hemen dituzten beharrak eta jatorrizko herrietan zituztenak desberdinak izan daitezke. Haien egoera sozio-ekonomikoak lan mundura lehenbailehen sartzea exijitzen die, eta eskolari haurrak zaintzeko eskatzen diote, haien kulturen ohikoa ez izan arren.

Honela, askotarikoak izan daitezke ikasle etorkinen gurasoen jarrerak beraien seme-alabak hezkuntza sisteman sartu nahi dituztenean.

Immigrazio prozesuez ahal den informazio gehien izateak familia berrien egoera ulertzen lagunduko digu irakasleoi. Horren ondorioz, haien beharrei hobeto erantzun ahal izango diegu.

E. Coelho edozein emigrazio prozesutan gerta daitezkeen egoera batzuk aipatzen ditu:

Familia banatuta egotea

Gehienetan, familiak apurka-apurka iristen dira harrera gizartera. Familiako kide bat ez egoteak desoreka sor dezake, eta azkenean iristen denean, egin beharreko berregokitzeak larritasun egoerak sor ditzake, familiako harremanak bere onera etorri arte.

Erabakia, prestaketak eta laguntza

Familia batzuek emigratzea erabaki dute, bidaia prestatu dute, eta harrera gizartean dituzten laguntzen berri izan dute, beren kulturako beste kide batzuek lehenago egin izan dutelako. Horiek zorionekoak dira. Zoritzarrez, gehienek kasua ez da hori izaten, eta erabaki hori hartzea ez dagokie hurrei, gaztetxoei eta, zenbait kulturetan, ezta emakume gazteei ere. Giza talde horietan, erabakimenik ez duten horiengan askotan inpotentzia eta desgokitasun sentimendua garatzen da.

Ingurumeneko faktoreak

Nekazaritza mundutik hirietara etortzeak, bakardadeak, bakartutasentitzeak, pisu txikietan jende asko bizi-tzeak... arazoak sor ditzake familiako kideen artean ere.

Bakartze kulturala

Eguneroko zereginak eta hizkuntza berrian duten zailtasunek harrera gizartearen kulturara hurbiltzea eragozten diete helduei. Elkarrekintzarako aukera gutxi izaten dute, eta komunikazio premiak murriztu egiten dira. Bakartze horrek, askotan, seme-alabengan du eragina: edo familia osoak pairatzen du aipatutako bakartze hori, edo jauzia sortzen da heldu bakartuen eta mundu berrian parte hartzeko gogotsuago dabilzan gazteen artean.

Identitatea

Identitatea eraikitzea oinarritzkoa da pertsonaren formazioan. Baina, askotan, ikasleek ez dute euren burua islatuta ikusten harrera gizarteko jardunbideetan. Hori oso txarra da, ikasleak ez baitu aurkitzen bere identitatea eraikitzeko eredurik.

Egoera sozio-ekonomikoa

Hizkuntz gaitasunik ez izateak, ikasketa eta tituluak baliozkotzea lortzeko ezintasunak, diskriminazioak eta abarrek, besteak beste, zera eragiten dute: etorkin kualifikatu batzuek beren esparruko lana aurkitzeko aukerarik ez izatea. Horrek autoestimu arazoak eta gutxiespen sentimenduak sor ditzake.

Aldaketak familiako botere egiturari

Harrera gizarteko lan merkatuaren premiak direla eta, baliteke jatorriko herrialdean familiako kide bakoitzari esleitutako rol tradizionalak aldatu behar izatea etxeko lanen banaketan, estatusean eta boterean. Egoera horrek gaizkiulertuak sor ditzake familiaren barruan, eta bortizkeria ere bai. Seme-alaben hezkuntzari dagokionez, baliteke jatorriko gizarteko hainbat jardunbide harrera gizartean onartezinak izateko.

tea. Horren ondorioz, gurasoak armarik gabe gelditzen dira eta etxean arazok sor daitezke.

Eskolaren eta familiaren arteko gatazka kulturalak

Zenbaitetan, ikasleak bere jatorriko kulturarekin bat ez datozen balio batzuen eragina izan dezake.

Haurrek harrera gizarteko hizkuntzan zenbat eta erraztasun handiagoa hartu, orduan eta distantzia handiagoa ezartzen da erraztasun hori lortu ez duten helduekiko. Horrez gain, etxeko hizkuntzan gaitasuna galduz badoaz, azkenean familiarekin bera-ekin komunikazio arazoak ere sor daitezke.

Irakasleok kontuan hartu beharko ditugu aipatu ditugun ezaugarri horiek, gure esku hartzea egoera berrietara egokitzeko. Hori egokitzen prozesu bat bideratuz lortuko dugu, familiak dinamika berrian behar duten erritmoan eta denboran moldatzen joan daitezen, informazio argia eta zehatza emanez, eta azkenik, haien egoera ulertzeko enpatia baliatuz.

Familiaren eta eskolaren arteko komunikazio egoerak errazteko jarraibideak

Haur Hezkuntzan gurasoekiko harremanak honako hauek izan daitezke:

Harreman ez formalak:

Sarrera eta irteeretan haurrak eskolan uztera edo jasotzera datozenean, bat-batean sortzen direnak.

Harreman formalak:

Elkarriketa formaletan, aldez aurretik deitutakoetan; gidoia aurrez prestatuta izaten dutenak dira.

Gelako bileretan:

Tutorea neska-mutil guztien gurasoekin elkartzen denean.

Haur etorkinen familiekin komunikatzeko arazoak egon daitezke hizkuntza ondo ulertzen ez dutelako, edo gure erreferente kulturalak ezagutzen ez dituztelako. Horregatik, harremanetan hasten garen mementotik kontuan hartu beharko dugu:

- Gurasoei kontatu nahi diegunak semearekin edo alabarekin zerikusi zuzena izan behar du. Ondoren, komunikazio giroa sortu denean, gelako gaineko alderdiak azter ditzakegu. Eman- go diegun informazioa testuinguruan ondo kokatuko dugu; adibideak jarri eta euskarri grafikoak edo erreala- erabil ditzakegu, ulermen- era egokian izan dadin.

- Elkarriketa formal- bada, deialdia ahoz eta idatziz egingo diegu. Horrela, paperean idatzita dagoen informazioaren gainean zalantzarik baldin badute, hizkuntza beraiek baino hobeto menperatzen duen lagun bati galde- tzeko aukera izango dute.

- Elkar ulertzeko zailtasunak izanez gero, Lurralde Ordezkaritzako etorki- nen teknikariarengana jo dezakegu, itzultzailea eskatzeko. Erantzunik ez balego, atzerriko familiaren senide edo ezagun batekin molda gaitezke, ahal bada.

- Familiarekin ikaslearen balorazioa aztertzen denean, haurrak jorratu- tako bidea eta garapena baloratuko di- tugu, eta ez bere ikaskideekiko izan de- zakeen alde- a.

Aldi berean, gurasoei azalduko diz- kiegu aurrera jarraitzeko eskaini ahal dizkiegun laguntzak eta proposame- nak.

- Harrera gizarteko hizkuntzan edo hizkuntzetan konpetentziarik ez izate- ak mesfidantza, zalantzak edo beldu- rrak sor ditzake gurasoengan. Testui- gurua oso argi ez badago, gurasoei gal- detu nahi dieguna ikaslearekin guztiz lotua ez badago, galdera hori harrera gi- zarteko unibertso kulturean oinarri- tuta badago... elkar ulertzea zaila gerta daiteke.

- Aipatu beharra dago etorri berriak diren gurasoentzat edo harrera gizarte- ko hizkuntza menperatzen ez duten ai- ta-amentzat gogorra izan daitekeela gelako bileretara joatea, horietan gura- so asko biltzen direlako eta informa- zioa orokorra izaten delako. Ez ulertze- ak tentsioa sor dezake. Horregatik, hainbat guraso atzeritar ez dira joaten horrelako bileretara.

Horrelako egoeretan, irakasleok gai izan behar dugu etorri ezin hori era egokian interpretatzeko.

Atzerriko gurasoen parte hartzea bultzatzeko iradokizunak

Orain arte aipatutako guztian oinarrituta, erraz ulertuko dugu atzerriko gurasoek ere egokitzen denbora bat behar dutela eskolara hurbiltzeko, nahiz eta egunero gelaraino sartu. Irakasleok, gure aldetik, errespetuz, enpatiaz eta pazientziaz jokatu behar dugu, jorratu behar duten prozesua errespetatuz.

Prozesuaren urratsak eta denborak desberdinak izango dira familia bakoitzaren estiloaren eta kulturaren arabera. Hori dela eta, irakasle bakoitzak ikusi-ko du zein izan daitekeen unerik aproposena guraso berriak gelako di- namikan parte hartzera gonbidatzeko.

Batzuetan interesgarria izan daite- ke gelako beste guraso baten konplizi- tatearekin jokatzeko, eguneroko sarrera eta irteeretan gurasoek beren artean kontaktuak, "bisualak" edo pertsona- lak, izaten baitituzte.

Besteetan, dei zabalagoak izan dai- tezke, adibidez txangoak, ospakizu- nak, mozorroak edo material prestake- tak egin behar direnean. Eskolak gaine- rako gurasoen parte hartzea bultzatzen eta eskertzen duen moduan, berdin egin beharko du atzerriko gurasoekin, beti ere horietako batzuen ezagutzarik eza kontuan izanik.

Aipamen berezia merezi dute ikas- tetxean ospatzen diren jaialdiek. Horre- lakoetan, giro alai-az inguratuz, kultu- rak garrantzia eta protagonismoa har- tzen ditu, eta sinboloak eta identitate ezaugarriak adierazteko uneak izaten dira. Une horiek oso probetxugarriak izan daitezke familien arteko loturak egiteko, baldin eta guraso berriei ekin- tzen nondik norakoa ulertzeko parada ematen badiegu. Horretarako, alde- z aurretik, ikastetxeko ospakizunen al- buma prestatuta izan dezakegu, ondo- ren ospatuko dena iragartzeko, irudiak aurrean izanda errazago ulertuko dituz- telako emango diren azalpenak. •

Lagunak Iparraldean eta Hegoaldean

Lasarte-Oriako Landaberri ikastola eta Donibane Garaziko eta Izurako ikastolak eta kolegioa

Ebakitzen duzunean zuhaitz bat, eta berriz hartarik urtumeak edo adarrak sortzen direnean, ageri da ez zenduela osoko eta ondotik ebaki, gelditu zela zenbait erro eta zain.

Axular

2004. urtearen amaieran Hegoaldetik Iparraldera. 2005ean Iparraldetik Hegoaldera. 2006ko udaberrian berriro Hegoaldetik Iparraldera. Haizea ez ezik, beste batzuk ere harat eta honat dabilta, baina norabiderik galdu gabe. Lasarte-Oriako Landaberri ikastolaz eta Oztibarreko eta Donibane Garaziko ikastolez eta kolegioaz ari gara. Gurasoak, ikasleak eta irakasleak, jada denek elkar ezagutzen dute. Berriki jarri dira elkarrekin harremanetan eta konpromisoz eta elkarri laguntzeko gogoz hornitutako bidea egiten hasi dira, elkar ezagutzeak hurbildu egiten baitu.



Gutxi gorabehera ezagutzen dugu Iparraldeko egoera zein den: biztanleriaren gehiengoa kostaldean bizi da, barnealdeko herriak oso txikiak dira, gehienak laborariak dira, euskara ez da ofiziala eta haren egoera larria da, desgertzeko bidean dago belaunaldien arteko etena dela-eta, euskarazko irakaskuntzak traba askotxo gainditu behar ditu, ikastola asko Hegoaldeko laguntzarekin eraiki dira... Baina, non dago zehazki Izura? Edota Ortzaize? Mapan ongi kokatuko al genuke Donapaleu? Zer-nolako bestak egiten dituzte? Nola bizi dira? Nolakoak dira hango ikastolak? Zer egiten dute denbora librean?

Iparraldetik Hegoaldera begiratuz gero, gauza bera gertatzen da, antzeko galderak sortzen dira: non kokatu Murgia? Eta Murgia? Hegoaldeko ikastolak ere hain txikiak izango al dira? Kalean

euskaraz bizitzeko aukerarik ba al dute? Herri handietan eta hirietan zer harreman dituzte?

Konturatu gabe, makina bat galdera sortzen dira, eta orduan jabetzen gara gure ezjakintasunaz. Urrun sentitzen gara. Denok gara euskaldunak, baina arrotzak ere bai, hein batean.

Urruntasun hori hausteko modurik onena elkar ezagutzea izaten da, eta horregatik hasi ziren Gipuzkoako Lasarte-Oriako eta Nafarroa Behereko Donibane Garaziko ikastoletako gurasoak elkarrekin biltzen. Maite Goizueta Lasarte-Oriako Landaberri ikastolako gurasoa da eta hark dioen modura, "Truñean manifestazioren bat dagoenean, joaten gara; baina Baionan dagoenean ez. Oraindik ere badago muga bat Iparraldea eta Hegoaldearen artean eta hori hautsi nahi dugu. Iparraldean



lagunak edukiz gero, errazagoa egingo zaigu hara joatea, eta haiei ere gauza bera. Horregatik, familien arteko harremanak sortu nahi ditugu”.

Iazko azaroan Nafarroa Behereko gurasoak, irakasleak eta ikasleak Lasarte-Oriara etorri ziren egunpasa bat egi-tera, eta senidetze jaialdi batekin ospatu zuten eguna. Batzuentzat zein beste-entzat, gazteentzat nahiz helduentzat, egun garrantzitsua izan zen. Xalbat Falxa Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko Guraso Elkarteko lehendakariak dioen modura, “gure adinekook ez dugu aukerarik ukan honat etortzeko. Orain badugu aukera eta gure haurrentzat mugarik ez da. Hori behar diegu irakatsi. Guk lehen urratsa eman dugu eta biharko haurrek landu behar dituzte euren arteko harremanak”. Gabi Fagaburu Oztibarrekiko ikastolako Guraso Elkarteko lehendakariak dioenez, “haurrak naturalki etortzen dira Lasarte-Oriara ikastolako beste lagun batzuk ikusterat. Mugak guk ditugu, beraientzat naturala da. Gainera, ohartu dira bai haurrak eta bai gurasoak ordu eta erdian hemen gaudela, Bordele baino hurbilago dagoela. Segur naiz jende anitzek asteburua edo hiru egun pasatzen dituela Landetan eta Pirinioetan, baina ez dela ausartzen Gipuzkoara eta Bizkaira joaten. Ohartu behar dugu hurbil gaudela eta badugula hizkuntza bat errazki mintzateko eta elkar ulertzeko”.

Bada zer ezagutua

Senidetze jaialdiak eta aurrerago etorriko diren beste ekitaldiek elkar ezagutzeko aukera emango dute. Izan

ere, xehetasunak eta gauza ttipiak badira ere, ohitura batzuk desberdinak dira Bidasoaz iparraldera zein hegoaldera. Lasarte-Oriako senidetze jaialdian 14:00etan bazkaldu zuten, eta Nafarroa Beherean 12:30ean bazkaltzen dutena kontuan izanik... batzuek gosea pasako zuten, bai.

Donibane Garazitik eta Oztibarretik Lasarte-Oriara etortzea nekazari inguruntetik hirira etortzea izan zen. Xalbat Falxak hala dio: “gure ikasleek, Lasarte-Oriara etorrita, animaleko ikastola ikusten dute. Gu han ttipi-ttipiak gara. Donibane Garaziko ikastolan 95 haur eta Oztibarren 35-40. Honat etortzen garelarik eta 900 haur direla entzuten dugularik... beste mundu batean gara”.

Kulturalki ere beste zenbait ohitura berri ikusteko eta ikasteko aukera izaten dute haurrek: Hegoaldean trikitixa asko entzuten da eta bertsolaritza indartuta dago; Iparraldean kanturako ohitura oso zabaldua dago. Iparraldean trinketea aritzen dira eta Hegoaldean ezker paretean. Batak zein besteak aberasteko bidea ematen dute, buruan ditugun mugak gaindituz.

Laguntza zertarako?

Maite Goizuetaren ustez, “Iparraldean euskararen egoera Hegoaldean baino okerragoa da eta ikastolena ere bai. Zentzu horretan, baduzu zertan lagundua. Esate baterako, liburutegiak hutsik dituzte, eta guk hemendik liburuak bidal ditzakegu. Baita material didaktikoa, jokoak, buruhaustea eta abar ere. Horregatik, bilketa bat egingo dugu materiala bidaltzeko”.

Xebastian Ihidoi Donibane Garaziko ikastolako Guraso Elkarteko lehendakariak dioenez, Hegoaldetik jasotzen duten laguntza garrantzitsua da eurentzat. “Orain arte egin diren erakuntzak Hegoaldeko diruarekin pagatu dira, eta hori ezin dugu ukatu, esker-tu baizik”. Eusko Jaurlaritzatik eta Udalbiltzatik ere jasotzen dute diru laguntza, baina Gabi Fagaburuk dioenez, “hemengo hautetsiek ez dute maite Hegoaldetik dirua sartzea, beraiek ez baitute ematen. Hegoaldetik diru publikoa heltzen dela ikusten dute eta horrek kontraesana sortzen die. Hitz ederrak bai, baina gauza gutti egiten da Iparraldeko administrazio publikoaren aldetik. Horregatik, Hegoaldeko laguntzak akuilu ziztada bat ematen die”.

Gela barruko lana: urratsean eta xumeki

Senidetze eta harreman sarea gurasoek bultzatu badute ere, eskola barruan ere lantzen dute. Landaberri ikastolako Lehen Hezkuntzako zuzendari Susana Arrizabalagak dioen modura, “batez ere gurasoen esku utzi dugu dinamika, eta guk gure neurrian eta ahal duguna egingo dugula esan diegu. Alegia, gela barruan beraien dinamika hori modu aprobetxagarrian txertatzen saiatuko gara. Hau da, gela barruan egi-ten ditugun zenbait jardueratan harreman hori modu motibagarrian erabiltzen dugu. Esate baterako, ipuinak egi-ten ditugunean edo gutunak edo testu

Maite Goizueta:
“Iparraldean lagunak edukiz gero, errazagoa egingo zaigu hara joatea, eta haiei ere gauza bera. Horregatik, familien arteko harremanak sortu nahi ditugu”

motak lantzen ditugunean, Iparraldeko lagunei idazten diegu”. Iaz Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako edo Ama Eskolako 1. eta 2. mailako ikasleak gutunak trukatzeko hasi ziren. “Guk 3. mailakoekin power point-eko muntaketa bat egin genuen eta haiei bidali” dio Susanak. “Testu lanketaren barruan azalpen testua lantzen ari ginen eta gure herriaren azalpen bat prestatu genuen, handik hona etortzeko ibilbidea zehaztu eta gure ikastolaren deskribapena egin. Gero argazki batzuk atera genituen eta ahozko testu bat erantsiz power point bat osatu genuen”.

“Guk Landaberriko aldizkaria ukan genuen eta gure ikasleek sortutako testu batzuk hori agertzea proposatu zitzaigun” dio Jean Michel Etxegarai kolegioko zuzendariak.

Harreman horiek bideratzeko hizkuntzaren arazoarekin egin zutelato dio Susanak. “Gure haurrentzat arrotza da Donibane Garaziko lagunen hizkera, ohitu gabe daudelako. Horregatik, hasieran grabaketa batzuekin landu genuen”. Jean Michelek dioenez, “guk ez dugu arazo hori. Kolegioan herri askotakoak biltzen baitira: Amikuzekoak, Garazikoak, Zuberoakoak... Jada ezagutzen dituzte beraien arteko euskalkiak, nahiz eta ikastolan batua erabiltzen den. Ez zaie errazago Hegoaldekoen baino, baina urrats hori emateko ohitura badute”.

Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan lehenik ere bazuten trukeak egiteko ohitura hori: astebetez beste eskola batera joaten dira eta beste astebetez hangoak Donibane Garazira, gutunak trukatzeko dituzte eta abar. Baina ikasleak eta irakasleak arteko harremanak dira. Lasarte-Oriako senidetzearen kasuan, osterak, gurasoak ere tartean daude, eta horrek eskolatik kanpoko erlazioak sendotzeko aukera ematen du.

Idea eta gogoetak badituzte, baina dinamika sortzeak denbora eskatzen duela diote bi zuzendariak. “Gure ikastolan, Lehen Hezkuntzan, irakasle talde bat sortu da hori dinamizatzeko eta gurasoak egiten dituzten ekintzekin koordinatzeko. Baina oraindik lehenengo urratsak eman ditugu, hasi baino ez gara egin”. Jean Michelen iritziz, “Buruz buruko harremanak behar dira

Landaberri ikastolako eta Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko zuzendariak: “Gela barruan egiten ditugun zenbait jardueratan harreman hori modu motibagarrian erabiltzen dugu”

bereziki erlazio sendoak sortzeko”. Egingako senidetze jaialdiak horretarako balio izan du, eta aurrerantzean egingo dituztenek ere bai. Lehenengo urratsa eman baitute, eta segidakoak etorriko dira. Garrantzitsuena badaukatelako: adiskidetasuna, interesa eta gogoia. •



Liburuen Xarma irakasleen gida

Irakurzaletzeko, genero bakoitzaren sekretuak azaltzen dituen bilduma

Euskal Idazleen Elkarteak atera du irakasleentzako gida hau. Ikasleei irakurtzeko grina transmititzea ez baita erraza askotan, ezta liburu baten atzean dagoena kontzienteki irakurtzen laguntzea ere. Horretarako, irakasleak literaturaz jakin behar du eta, batez ere, transmititzen asmatu.

Idazleek hezkuntzari beren ekarpena egin diote lan honetan: genero bakoitzaren gakoak azaltzen dituzte, eta lantzeko proposamen batzuk eskaini orientabide gisa, irakurtzea benetako plazer bihur dadin.

Zure gustuko liburu baten idazlea duzu, aurrez aurre, ikasgela barruan, nahi duzunaz hitz egiteko pronto. Eta harreman bat sortzen da hor, literarioa, afektiboa. Luxua den egoera hori eskaintzen du, urtetan, "Idazleak Ikastetxeetan" programak.

Saioa ondo irteteko, ordea, hauxe da gakoa: liburu hori ikasleek ondo aztertuta edukitzea. Eta horretan, bitartekoa beti irakaslea da. Irakasleek literaturaz gehiago alagutxiago jakin ohi dute; batzuek, literaturaz jakin arren, ez dakite hori transmititzen, ez dakite nola irakurrarazi, nola landu. Idazleek se-



kulako hutsunea ikusten zuten hor, baita irakasleek ere (maiz, liburua nola landu jakiteko tresnak eskatu izan dizkiete). Zulo hori betetzera dator "Liburuen Xarma" bilduma.

Zer dator liburu bakoitzean?

Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin? da lehen zenbakiaren izena, eta hasierako hurbilpen gisa gomendioak eskaintzen dira, dekalogo moduan, liburu baten aurrean zer jarri behar litzatekeen eta zein ez kontuan hartzeko. Hortik aurrera, genero bakoitzari erantzuteko dagokion eskuliburu osatzen joan dira.

Ikasmailaren arabera, lanketa bat proposatzen da genero bakoitzaren

barnean. Irakasleei zuzendutako gida denez, ariketa proposamenak dira eskaintzen direnak: ariketa batzuk betetean eraman daitezke ikasgelara; beste batzuek, berriz, bidea argitzen dute, antzerako beste zernahi ariketa asmatu ahal izateko gero irakasleak. Idazlearen bisita jaso behar duten ikastetxeentzat, idazle horri buruzko biografia ateratzeko ere proposatzen da, baita autoreaz gehiago jakiteko beste ariketa batzuk ere (haren beste tituluen arteko komunztadura bat egitea, adibidez). Liburu bakoitzaren amaieran, genero horri lotutako bibliografia dator, proposamen honetaz haratago joan nahi izanez gero, irakasleek nora jo jakiteko.

Idazleek obra bat osatzerakoan zer hari mugitzen dituzten bistaratu dute bilduma honetan, horrek balio dezan irakurketa kontzienteago bat, kritikoago bat egiteko, eta irakurketa gustagarriagoa izateko.

Irakurzaletzeko, genero bakoitzaren sekretuak azaltzen

Idazleek obra bat osatzerakoan zer hari mugitzen dituzten bistaratu dute bilduma honetan. Genero bakoitzaren osagaiak, trikimailuak papereratu dituzte, hala, generoen "erradiografia" horiek balio dezaten gero edozein libururen aurrean irakurketa kontzienteago bat, kritikoago bat egiteko eta, beraz, irakurketa gustagarriagoa izateko.

Edozein libururi gozamenek helzeko tresnak ematea da, beraz, bilduma honen egitekoa. Horregatik, genero bakoitzaren barnean ez du gomentatzen zer titulu literario irakurri (eskaintzen den bibliografia, genero horren lanketa egiteko dauden liburuei buruzkoa da). Euskal Idazleen Elkarteko printzipioa baita, edozein titulu literario dela ona eta, beraz, aukera egin behar duzula irakurlearen arabera, mementoaren edo arduraren arabera.

Bilduman idazketaren alderdia ere ez da falta, irakurketak eta idazketak elkarren beharra baitute. Adibidez, ipuina lantzeko ariketa gisa istorio bera kontatzeko proposatuko da, baina pertsonaia aldatuta, edota beste denbora batean kokatuta, edo halako akzio mota bat sartuz.

Liburuen banaketa

"Idazleak ikastetxeetara" programan parte hartzen duten eskolei doan banatzen zaizkie urte horretan argitaratutako bi liburuak. Urteetan ikusitako

premiari erantzutea da bilduma horren funtzioa; horregatik, idazlearekin saioa aurrera eraman behar duen irakasle horri bidaltzen zaizkio, zuzenean, liburuak. Baina interesa duten beste irakasle denen eskura ere jarri nahi izan dute materiala, literatura edo irakurzaletasuna lantzeaz arduratzen diren irakasleek izan dezaten orientabide modura. Orain arte eskaria handia dela nabarmendu digute, eta idazleen saioetako balorazio orrietatik jakin dutenez, irakasleek erabiltzen dute, eta oso ondo etorri zaiela azpimarratzen dute. Ohiko salmenta puntuetan aurkituko duzu bilduma. Topatzeko arazorik izanez gero, Euskal Idazleen Elkartera deitu eta eskatzerik badago (943 27 69 99). •



Bilduma

1. Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?

J. K. Igerabide, Antton Irusta, J. M. Olaizola "Txiliku".

2. Poesia lantzeko gida

J. K. Igerabide, Antton Irusta, J. M. Olaizola "Txiliku", Maria Angeles Etxeberria.

3. Eskola antzerkirako gida

Yolanda Arrieta, Antton Irusta, Iñaki Frieria.

4. Ipuina lantzeko gida

Yolanda Arrieta, Antton Irusta, Iñaki Frieria.

5. Saiakeran saiatzeko gida

Fito Rodriguez, Antton Irusta

6. Eleberria lantzeko gida

Antton Irusta, Asel Uzarraga.

• **Irakasleei zuzendua.** LHtik Batxilergora bitarte, ikasleek genero bakoitzaren irakurketan sakon dezaten gakoak, aholkuak zein ariketak proposatzen zaizkio irakasleari, baita genero hori lantzeko bibliografia eman ere.

• **Eskuratzeko:** ohiko salmenta tokietara jo. Aurkitu ezean, deitu Euskal Idazleen Elkartera, eta bidaliko dizute (943 27 69 99).

• **Talde lanean egina.** Bildumaren atzean, Euskal Idazleen Elkarteko azpibatzorde bat aritu da, nahiz liburu bakoitzak bere egiletza izan.

Gaur egungo eskola ekonomiaren zerbitzura al dago



Gero eta ozenago datorren pentsamendua da: "lanik ez badute aurkitzen, alfer-alferrik izango dira gure ahaleginak. Haurra horretarako prestatu behar da, lana aurki dezan eta bizimodua ateratzeko gai izan dadin".

Pentsamendu iturri horren atzetik etorri dira enpresa munduaren eta ekonomia zuzentzailearen heziketarako ildoak: kalitatea, lehiakortasuna, arrakasta, norgehiagoka, guk gurea, ez politizatu, dagoena dago eta utzi utopiai...

Lehen beste ildo batzuk zeuden Euskal Herriko eskoletan: gizarte justuago baten alde egitea, gizarte hobea lortzea, zuzentasunaren eta ekitatearen aldeko heziketa...

Gaur egungo eskola ekonomiaren zerbitzura al dago?

Hasteko, planteatzen den tesiarekin ez nagoela erabat ados esan behar dut. Memento honetan enpresetan gaur egungo eta etorkizuneko lanpostuen helburuak eta eskaerak ez daude lehiakortasunari, arrakastari, indibi-



Rebeka ARRARAS

NAFARROAKO EMAKUME ENPRESARI ETA
ZUZENDARIEN ELKARTEKO LEHENDAKARIORDEA

dualtasunari, agresibitateari, utopiai uzteari eta abarri soilik lotuta. Ezta pentsatu ere. Are gehiago, kontzeptu horietako batzuei (arrakasta, lidergoa edo lehiakortasuna) normalean gutxiespen zentzua eman zaie, eta ez dute zertan hala izan beharrik; ez dira txartxat hartu behar, bakoitzak bere alde positiboa eta beharrezkoa baititu. Gainera, munduko (edo gutxienez Europako) lanpostuen politika berrietan positibotzat eta beharrezkotzat hartzen dira lanerako trebakuntza berrietarako erduei begira.

Zer eskatuko da lanpostuetarako?

Etorkizuneko lanpostuetarako eskakizun berrien inguruko eztabaida irekia dago Europako Batasunean. Hemendik aurrera beste gaitasun berri batzuk eskatuko dituzte enpresek, eta ez "klasikoak". Eta zehazten eta definitzen hasiak daude.

Hainbat egoeratarako moldatzeko gai diren pertsonak eskatuko dira: egoera berrietara, enpresa bereko lanpostu desberdinetara, zenbait enpresen artean txandatzera (talde bereko enpresa edo ez), mugikortasun geografikora (batez ere lan munduan sartu berritan, askotariko gaitasunak eskuratzeko)...

Langile berriek garbi eduki behar dute trebeziak eskuratzeko gaitasuna lortu behar dutela; hau da, sentsibiltatea eduki beharko dute euren berezko eta ikasitako trebetasunak identifikatzeko (hezkuntzan, eguneroko bizi-tzan, ametsetan, kezketan, hobbyetan, aurreko lanetan...). Era berean, kontziente izan beharko dute etorkizuneko enpresak beren abileziengatik gehiago baloratuko dituztela prestakuntza akademikoagatik eta egindako ikastaroengatik baino.

Enpresaren helburu nagusia dirua

**Arrakasta, lidergoa
edo lehiakortasuna
bezalako kontzeptuei
gutxiespen zentzua
ematen zaie, eta ez
dute zertan hala izan
beharrik; ez dira txar-
tzat hartu behar,
bakoitzak bere alde
positiboa eta beha-
rrezkoa baititu.**

irabaztea eta aberastasuna sortzea da. Horregatik, bere langileek errendimendu gehiago eta hobeaz izatea nahi du, bere helburu ekonomikoak asetzeko. Horrela, Giza Harremanetako zuzendaritzaren joera zera da: langileak asetzeko eta pertsona gisa errealizatzea. Azken urteotako aldaketak eta errebindikazio sozialak direla-eta (biztanleria-
ren zahartzea, emakumea lan merkatuan sartzea, familia egituren aldaketak...) beste kezka eta behar batzuk sortzen ari dira langileen artean. Horrekin batera, lana ulertzeko beste modu bat sortzen ari da, eta horrek beste termino eta adierazpen batzuk dakartza, adibidez: aukera berdintasuna (gizon eta emakumeen artean, eta "kristalezko sabaiarekin" amaitu etnika, adin... desberdinen artean), Familia Erantzukizuna Enpresetan edo bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko kontziliazioa (bereziki familia eredu berriak artatzeko –haurrekin edo gabe bizi diren ezkongabeak, berriz bikotea duten banatutakoak, beren ardurapean pertsonak dituztenak...), Enpresen Erantzukizun Soziala gizarte hobeaz eta ingurumen garbiagoa lortzen laguntzeko (jasangarritasuna, lanpostu egonkorra eta eskubideekin, ingurumenaren errespetua eta zaintzea...).

Gainera, aldaketa teknologiko ga-

rrantzitsuak eta erabakiorrak ikusten ari gara: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera orokortzen ari da, komunikazioa globalizatu egin da, espazio eta denbora mugak moztu egin dira eta abar.

Alderdi horiek denak eta beste asko irudi berri bat margotzen ari dira enpresen antolaketari dagokionez. Gizatasunik gabeko egitura duten eta maneiatzen zailak diren enpresa konplexuak eta erraldoiak desagertzen ari dira, eta horien ordez enpresa txikiagoak eratzen ari dira eta zeregin berriei (ez dakigu hemendik 20 urte barru nolakoak izango diren lanpostuen % 60). Eta zeregin edo lanpostu berri horiei egin behar diete aurre euren lehen lanpostua eskuratu nahi duten gazteek.

Nolako pertsonak nahi ditugu

Gauza jakina da pertsona bat lehiakorra izan daitekeela bere lanpostuan eta, aldi berean, solidarioa bere lankideekin. Hori ez da eztabaidan jartzen gaur egun. Era berean, ez da aipatu ere egiten norbait bere lanpostuan kalitatezko zerbitzua edo produktua eskaintzen ahalegintzea eta bestalde, langile gisa bere eskubide bakar bat ere bermatua ezizatea. Edonola ere, horrelako kasuak ez daude erabat desagertuta, ez enpresako arduradunen artean ez langileen artean ere. Eta hor bai hezkuntza sistemak zerbait egin dezakeela eta egin behar lukeela, noski.

Hezkuntza sistemak hiritarrak lan merkatu berrira egokitzeko prestatu behar ditu, iaiotasunak eta abileziak eskuratu behar dituzte eta erronka hori heldu behar dio. Jada ez da nahikoa ezagutza akademiko gaurkotuak izatea. Hainbat gaitasun gako gizaki guztien hezkuntzan landu beharko lirateke: sormena, talde lana, behaketa, pentsamendu analitikoa, iniziatiba, autonomia, malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna. Abilezia horiek landu eta ikas daitezke. Gaur egun, sistema ekoizleak gaitasun sozialak eta ezaugarri abstraktuak dituzten pertsonak bilatzen ditu, besteak beste: berritzeko gaitasuna, norberaren erabakien

eta ekintzen gaitasun erantzukizuna, ingurura egokitzeko erraztasuna, kudeatzeko, erabakiak hartzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna... Europako Komisioarentzat funtsezkoa da etorkizuneko enpresek eta langileek dibertsifikatzea, berritzea eta eskualdetan aberastasuna sortzea.

Pertsona hobeak lortu beharko genituzke, noski. Enpresa eta enpresen eta lanaren mundua hobeto ulertuko duten pertsonak, euren izerdia mundu hobeaz eta solidarioagoa eraikitzei eskain dezaten. Izan daitezela pertsona lehiakorrak eta lor dezatela arrakasta euren lanean, baina arrakasta hori ez dadila termino ekonomikoetan soilik ulertua izan, baizik eta errespetuan, elkartasunean, asetasunean... Egin dezatela kalitatezko lana eta eskain diezaiela enpresari, horren truke soldataz aparteko onurak negoziatzeko, esate baterako: ordutegi malguak, baimeak, helburuen arabera kudeaketa, lan-utzialdiak, prestaskuntza...

Eskolatik beste modu batera ulertu beharko lirateke enpresa eta lan mundua. Eskolan hasten zarete etorkizuneko langileak eta enpresariak hezten eta prestatzen. Zergatik ez bultzatu eta indartu ongi egindako enpresaren eta lanaren espiritua eskolatik? Zuen eskutik uzten dugu... •

**Hainbat gaitasun gako
gizaki guztien hezkun-
tzan landu beharko
lirateke: sormena, talde
lana, behaketa, pentsa-
mendu analitikoa, ini-
ziatiba, autonomia,
malgutasuna eta alda-
ketetara egokitzeko
gaitasuna. Abilezia
horiek landu eta ikas
daitezke.**

MAHARI badakit JOLASA

**EDIZIO
BERRITUA**

Euskaraz dibertitzeko 1.800 galdera berri

Nola ospatzen dituzte Asterix eta Obelixek guda garaipenak?
Non dago Linpopo ibaia? Zenbat atomo ditu ur tanta batek?
Nik Badakit, eta zuk?

Prezioa
33€

7 urtetik gorakoentzat

Harpidedun prezioa

30€



Eskaerak: www.argia.com
denda@argia.com
943 37 15 45
Ohiko salmenta puntuetan



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

otsaila berriak

Bertsoz proiektua aurkeztu du Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak



Ikasgelan bertsolaritza lantzeak badakar onik. Ahozkotasunean sakontzea eta berau ebaluatzea da gaur ikastetxeetako arazoetako bat, zailtasunetako bat. Hutsune hori bete nahian sortu du *Bertsoz* proiektua Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak. Bertsogintza landuz, ahozko alderdi komunikatiboa trebatzea du xede egitasmo honek. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan lantzeko materiala dakar, ikasliburu eta bideo formatuetan. Ikasturte bakoitzean, bertsolaritzari lotutako 15 unitate didaktiko eskaintzen dira, eta horien abiapuntu diren 15 bertsoaldi ikusi ahal izango dira bideoz. Astean ordubetez lantzeko materiala da irakasleen esku jartzen den hau.



Metodologia

Unitate didaktiko bakoitzari hasiera emateko, bideoa jartzen da:

bertsoaldi bat ikusiko dute. Pantailan adin guztietako bertsolariak agertuko dira, euren adineko gaztetxoetatik hasi eta BEC-eko finalistetara zein belaunaldi zaharreneneraino. Izan ere bideo hauek osatzen 150 bertsolarik hartu dute parte.

Bideoan ikusitakoari tiraka, bigarren urratsean ikaslearen sormena jarriko da martxan. Batzuetan idatzizkoaren laguntza beharko dute, baina azkenean beti kantatu egin beharko dute ikasleek. Amaitzeko, bertsolariek erabilitako doinu eta neurriak landuko dira bereziki.

Ikasmateriala



Lehen Hezkuntza

- 3. eta 4. mailak: *Bertsoz play*.

Ikasturte bakoitzeko, ikaslearen liburu bat (15 unitate didaktikorekin) eta 3 bideo ditu (15 bertso saio biltzen dituzte).

- 5. eta 6. mailak: *Bertsoz blai*.

Ikasturte bakoitzeko, ikaslearen liburu bat eta 3 bideo ditu.

DBH

- 1. eta 2. mailak: *Bertsoz bai*.

Ikasturte bakoitzeko ikaslearen liburu bat eta DVDa izango du. Materiala argitaratzeke dago.

Xamarikoren ipuin zorroa

euskal mitologian barna



Xamarikoren ipuin zorroa eta kantu-jostetak ikastaroa

Zer: 10-12 orduko ikastaroan ahozko adierazpena lantzeko modu egokiak eta kantu zahar sorta erakutsiko dira. Guztiz praktikoa izanen da.

Norentzat: helduentzat. Irakasle, guraso eta interesdun guztientzat.

Informazio gehiago:

Dindaia Fundazioa

Tel.: 948 20 30 36

dindaia_fundazioa@wanadoo.es

Kaleko hotzari aurre eginez, Dindaia Fundazioak aurkezpen ekitaldi xume bezain atsegina egin zuen urtarileko ostegun batean Iruñeko AEKren egoitzan. Haur batzuk, gurasoak eta gazteak bertaratu ziren, eta musikariek eta pertsonaia mitologikoek kantuan eta irribarrez jarri zituzten. Pare bat ipuin entzuteko parada izan zen, eta tartean zenbait abesti alai eta bizi. Eta hori dena arrazoi bategatik: Dindaia Fundazioak **Xamarikoren ipuin zorroa** aurkezteko.

Euskararen erabilera sustatzeko eta motibazioa bultzatzeko xedez egindako material bilduma da **Xamarikoren ipuin zorroa**. CD bat, komiki liburua eta material didaktikoa; hiru osagarri horiek osatzen dute haurrentzat eta gurasoentzat bideratutako zorroak.

Behin zorroa irekita, euskal mitologiaren munduan sartzen gara. Izan ere, hori du ardatz lan honek. Ipuinak sortuz, kontatuz, kantatuz eta dantzatzuz geure mitologia aberatsa ezagutzeko aukera alai eskaintzen du.

Komikiak **Mattinen ipuin bidaia** du izena eta, izenak dioten bezala, Mattin ipuin bidaia batean murgiltzen da. CDan eta material didaktikoan agertzen diren ipuin guztiak biltzen ditu eta Mattinek pertsonaia mitologiko guztiekin abentura bat bizitzen du.

Material didaktikoan gauza anitz topa daitezke. Esate baterako, Euskal Herriko hainbat pertsonaiatan oinarritutako bertsoak eta partiturak, kanta herrikoiak, dantzatzeko kanta eta doinuak, komikian agertzen diren ipuinak musikatuta, partiturarekin eta pertsonaiaren marrazkia eta deskribapenare-

kin, asmakizunak, formulak, eta ipuinei buruzko teoria. Azken kasu honetan hurrei ipuinak kontatzerakoan aintzat hartu beharrekoak, hasierako eta bukaerako formulak eta ipuinak sortzeko teknikak esplikatzeko dira.

Pertsonaien deskribapena hiru hizkuntzatan agertzen da, eta ipuinak ere frantsesezko eta gaztelaniazko laburpen bat dute. Rikardo Ederria Dindaia Fundazioko kideak argitu zuenez, "materiala gurasoei zuzenduta dago, nahiz eta haurrentzako ere izan. Hoberena ipuinak euskaraz irakurtzea edo kontatzea da, baina ez baldin bakite, gaztelaniaz edo frantsesez egin dezakete, eta behintzat, euskal kulturaren eta mitologiaren oinarrituta daudenez, ondare hori jasoko dute. Euskal mitologiaren bitartez jakin-mina piztu nahi dugu jendearengan, horrek sortzen duen motibazioa haurrekin ere landu dezaten".

Ikastetxeetan lantzeko ere material egokia da. Adibidez, interpretazioa lantzeko, antzerkiak egiteko, ipuinak sortzeko, bertsoak lantzeko, musika lantzeko, kantatzeko...

Ez dago aitzakiarik. Zorroa ireki eta gozatzer!

Dindaia Fundazioa

Dindaia Fundazioa diru irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Nafarroako euskalgintzan dihardu lanean. Bere egitekoak bi ardatz nagusi ditu:

1- Norbanakoaren garapena: euskal hurrei euskalduntzeko eta bere garapen osoa ahal den hobekien burutzeko baliabideak sortzea. Horretarako, hainbat programa ditu:

- Aixe aisialdia: aisialdiaren kudeaketaz arduratzen da eta helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea da eskolaz kanpoko ekintzen bidez. Une honetan 19 ikastetxe-ekin egiten du lan eta hainbat udaletako ludotekak eta tailerrak antolatzen ditu.

2- Euskara eta euskal kultura berreskuratuko bada, giza mugimendu batean oinarritu behar da. Giza mugimendu hori sustatu egin behar da eta hori da Dindaiaren bigarren ardatza. Horretarako, hainbat proiektu ditu:

- **Nafarroan haur eskolak sustatzeko proiektua.**

- **2 urteko haurrentzako ludotekak.**

- **Xamarikoren ipuin zorroa.**

"Aldaketa hezkuntzan" kongresua antolatu du Kristau Eskolak

Otsailaren 17 eta 18an izango da kongresua Gasteizko Europa Biltzar eta Erakusketa Etxean. "Aldaketa hezkuntzan" izenburupean hainbat gai landuko dira kongresuan. Hasteko, Europara begira dagoen gaur egungo hezkuntza izango da hizpide. Bigarrenik, hezkuntza sistemen antolaketa eta kudeaketa ereduak aztertuko dira. Hirugarrenik, gaur egungo gizartean, balioetan eta hezkuntzan bizi diren aldaketak aztertuko dira. Eta amaiatzeko, euskal hezkuntza sistemaren erronkak, hezkuntza eskumenak, curriculum eta legedia jorratuko dira. Jarraian doana da egitarau zehatza:

Otsailak 17, ostirala

9:30 Hasiera ekitaldia

10:00-11:15 Lehen hitzaldia: "Egun-go hezkuntzaren ikuspegi europarra", Javier Manuel Valle Lopez, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

11:15-11:45 Atsedena

11:45-12:00 **Lehen gaia:** hezkuntza sistemen antolaketa eta kudeaketa ereduak. Koordinatzailea Xabier Gara-gorri.

12:00-13:00 Esperientzien aurkezpena eta mahai ingurua: *Kudeaketa eredu desberdinen aurkezpena eta esperientzia praktikoak*. Imanol Igeregi (eredu finlandiarra), Txema Errasti (Herbeheretako eredu) eta Lontxo Oihartzabal (eredu alemaniarra).

13:00 Bazkaria

15:00 **Bigarren gaia:** aldaketak gizartean eta hezkuntzan. Koordinatzailea Alfonso Unzeta.

15:15-16:15 Esperientzien aurkezpena eta mahai ingurua: *Aldaketa sozialetatik sortutako erronka berriak eta eskolaren eta gizartearen erantzunak*. Vincent Bancaud (Frantzia), kulturantzak; Juan Bedialauneta (Peñascal fundazioa), integrazio soziala; eta Belgikako Foyerren ikasketa eleantzen ereduak.

16:15-16:30 **Hirugarren gaia:** balio-



ak eta hezkuntza. Koordinatzailea Jesus Marauri.

16:30- 17:30 Esperientzien aurkezpena eta mahai ingurua: *Balioetan hezkuntza. Hezkuntza konpetentziak: ikasten ikasi eta elkarbizitzen ikasi*. Michael Wardlow (Irlanda), Ipar Irlandako eskola integratuen esperientzia; Jon Lazkano (Asti-leku ikastola), pentazitzea; Marlen Izagirre (Alboan), hezkuntza eta elkartasuna.

17:30-18:00 Atsedena

18:00 Hitzaldia: *Hezkuntza konpetentzia orokorraketa euskal curriculumaren proposamena*. Antoni Zabala, Aula aldizkariko zuzendaria.

Otsailak 18, larunbata

9:30-10:45 Erakusketa: *Hezkuntza sistemen lorpenak autonomia garrantik (1980-2005)*; Pedro M. Etxenike, Jose R. Rekalde, Inaxio Oliveri eta Anjeles Iztueta.

10:45- 12:15 Erakusketa eta solasaldia: *Hezkuntza Legearen proposamenak*. Oinarrizko ardatzak: *Katalunia eta Euskadi*. Blai Gasol i Roda, Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuko zuzendari orokorra. Jose Antonio Campos, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua.

12:15-12:45 Atsedena

12:45- 13:15 **DEIDER** Hezkuntza Behatokiaren aurkezpena: *egitura eta helburuak, ekintza plana eta lan ildoak*.

13:15-13:30 Ondorio orokorrak eta proposamenak.

Informazio gehiagorako:

www.kristaueskola/congreso
Tel.: 943 445 688

Eleaniztasunari buruzko jardunaldiak

Jakingarriak aldizkariak 20 urte betetzen ditu eta hori ospatzeko, besteak beste, jardunaldi batzuk antolatu dituzte. **Eleaniztasuna eskolan** izenburua izango dute eta **otsailaren 17an izango dira HUHEZIn**.

Azken urteotan lan ugari egin da Euskal Herrian gai horren inguruan, bai teorikoki eta bai praktikoki. Hori dela-eta, *Jakingarriak* aldizkariaren 57. zenbakia horri buruz izango da, hainbat adituren iritziak, gogoetak eta proposamenak bilduko direlarik. Horieta batzuk, jardunaldietan ikus-entzuteko aukera izango da. Hona hemen jardunaldien egitaraua:

9:00 Sarrera

9:30 Pili Sagasta eta Matilde Sainz: *Gure ikastetxean proiektu eleanitza eraiki nahi dugu: lagungarri izan daitezkeen hainbat alderdi*.

11:15 Uri Ruiz Bikandi: *Hizkuntzen irakaskuntzan printzipio metodologiko komunak, noraino?*

12:30 Tailerren aurkezpena

13:00 Bazkaria

15:00 Tailerrak:

1- Rosa Aliaga (Donostiako Berritzegunea) eta Teresa Ruiz (Abando-ko Berritzegunea): *Hizkuntza trater bateratua egiten ikasi: nondik hasi, nola garatu, nola koordinatu beste lankideekin?*

2- Ikastolen Elkarteak: *Zer dakigu eta qué queremos saber about this topic?* Lehen Hezkuntzan unitate integratuak diseina ditzagun.

17:00 Amaiera

Izena emateko epea: otsailak 10
Informazio gehiagorako:

HUHEZI, tel.: 943 714 157
sarrera@huhezi.edu

HIK HASIk Merezimenduzko Argia Saria jaso du



Argiak 2006ko Merezimendu Saria Hik Hasiri eman dio honako arrazoi hauengatik: *duela 10 urte sortu eta urte hauetan Euskal Herriko irakaskuntza munduan erreferente izatera iritsi da. Hilero etortzen zaigu eskuetara irakaskuntza eta pedagogia alorreko albiste, azterketa, hausnarketa eta eztabaida mamitsuenekin. Gainera, informazio iturri hori beste hainbeste produktu eta proiektuz aberastu dute.*

Hik Hasik saria proiektuan parte hartu duten guztiekin partekatu nahi du eta denei eskerrak eman. Hasteko, Argiako lagunei, hastapenetan eman ziguten laguntzagatik. Orain dela 10 urte, Hik Hasi proiektua martxan jartzerakoan, inork gutxik ikusten zuen bideragarria izan zitekeenik eta horrelako aldizkari batentzat lekurik ez zegoela pentsatzen zen. Baina era berean, euskal hezitzaileek elkarren berri izateko beharra ikusten zen, eta erronkari heldu egin zitzaion. Gaur egun, inork gutxik jartzen du zalantzan proiektua.


Aldizkaria da bizkarrezurra, baina horren inguruan beste hainbat proiektu sortu dira. Hori dena jende askoren laguntzari esker izan da posible, eta une hau aprobetxatu nahi dugu denoi eskerrak emateko: ikastetxeetan zabiltzaten hezitzaileoi zuen esperientziak eta ekarpenak bidaltzeagatik, unibertsitateko irakasleoi aholkulari lanak egiteagatik, kolaboratzaileoi zuen lanagatik, harpideoi zuen konfiantzagatik, udako topaketetan parte hartzen duzuenoi, eta modu batera edo bestera, ideiak eta proposamenak eginez, beti laguntzeko prest zaudetenoi. Eskerrik asko denoi!!

Hezkuntza eta euskaigintzako hainbat eragilek kanpaina berri bat jarri dute martxan *Bai eskolak euskalduntzeari!* lelopean. Eskolaren bidez haurren euskalduntzea bermatzeko aukerak ikusten dituzte. Sinadura bilketa bat egingo dute maiatza bitartean, instituzioei egun indarrean diren eredu edo politikak gaingitu eta euskalduntzea bermatuko duten prozesuak zabal ditzaten eskatzeko.

Bai eskolak euskalduntzeari! sinadura bilketa



argitalpenak



Lau ipuin matteomigliar
ELKAR

12 urtetik aurrerakoei zuzenduta dago. Matteomiglia herri zelebrea da, idazle irudimentsu batek sortutakoa. Herriko postontzi guztietatik itsasoa hasi da irteten eta komediak izango ditu postariak. Bestalde, ez da oso ohikoa udaletxeko funtzionario poeta bat aurkitzea ere. Eta Gilberto ehiztari mutilzaharra? Egia ote Parisko Marguerite panpoxak maitasun gutun bat bidali ziola? •



BAT Soziolinguistika adizkaria
59. alea

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Azken ale honek “Euskararen erabilera enpresetan” gaia aztertzen du 11 artikuluko sakonen bidez. Azpiatal askoren artean aipa daitezke “Lan-mundua: gaurko egoera eta asmoak”; “Erabilera planen aldeko argudioak”; “Aurrerapausoak erabileran: esperientzia praktikoa” edota “Sozioekonomia arloaren bilakaera Katalunian”. •



Txiukue
Alaitz Olaizola
EREIN

7-10 urte bitartekoentzako antzezlan bat da. Duela 500 urteko Txinan Txiukue izeneko 20 urteko neska bat bizi da. Herriko alkatearen alaba da, eta Peifen-ekin gustatuta dago: etxeko neskamea den bere adineko neskato langilearekin. Aitak alaba ezkondu nahi du, eta lau senargai aukeratu ditu. Txiukuek, ordea, Peifenekin ezkondu nahi du. •



Uholde unibertsaletik gaurko katastrofismora
Juan Ignazio Abrisketa
Joseba Etxeberria

GAIK

Liburuak agerian jarri nahi du klima hautemateko moduak ezberdinak izan direla mendeen eta kokaguneen arabera. Egun ere, klima-aldaketek (eta horien interpretazioak) ekonomia eta ideologiarekin zerikusia dute, ez zientziarekin soilik. •



Ametsaren Aro Berria
Nacho Fernandez
Vicente Ibañez
SAURE

Komiki honetako protagonista, Manuel, hamabi urteko Inka txiki bat da, Lima hiriko errabaletan jaiotakoa. Orain Sydney-ko auzo behartsu batean bizi da, non biztanle gehienak Australiako aborigenak diren. Manuelek go-goan du beti Limatik alde egiterakoan amak esandako hura... •



Eta dena katu beltz baten erruz
M. Teresa Aretzaga
GILTZA

“Batzuek esaten dute katu beltz batenkin topo egiteak zorte ona dakarrela; beste batzuek, berriz, kontrako iritzia dute. Batek daki zeinek duen arrazoa; agian, ez batzuek, ez besteek. Hala ere, abenturak zure berezitasuna ez badira, katu beltz batekin topo egiten baduzu, bururatu ere ez hari jarraitzerik!”. 10 urtetik aurrerakoentzat. •

... goza nazazu gehiago

Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko (eta II)



Jaime Altuna
Urtxintxa heziketa eskola

Ttakun Kultur Elkartek *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektua garatu du. Proiektuaren xede nagusia haur eta gazteekin eskola-orduz kanpoko jardueratan aritzen diren hezitzaileei euskararen erabilera sustatzeko tresnak eskura jartzea da.

Hik Hasi aldizkarian proiektuaren laburpen bat egitea gehiegizkoa izan daitekeenez, bi ideia aurkeztuko dira: aurreko zenbakian hezitzaileak taldean izan dezakeen kokapenaren inguruko ideia argitaratu zen, eta, honakotan, motibazioen inguruan arituko gara.

Motibazioak

Erabilera eragin nahi dugun momentotik, gazteei beraien ohituretan aldaketa bat eskatzen diegu. Beraz, desoreka bat sortu nahi dugu taldearen ohituretan. Desoreka hori sortu ahal izateko, gazteek jarduerarekiko dituzten motibazioak eta jardueraren intentsitatea oso kontuan izan beharko ditugu. Jarduerarekiko motibazioak instrumentalak, komunikatiboak eta integritzaileak izan daitezke, eta hiru motibazio horiek aztertuz jardueraren intentsitatea baloratu ahal izango da, motibazioen indarrak adierazten baitu jardueraren intentsitatea.

Erabilera aldetik gazteei eskatzen diegun ahalegina handia bada, hau da, ohituretan sortu nahi dugun desoreka handia bada, jardueraren intentsitateak handia izan beharko du, eta behar den kasuetan, motibazioetan eraginez intentsitatea indartu beharko dugu.

Sortu nahi dugun desoreka horretarako intentsitateari dagokion baldintza betetzen ez bada, oso zaila izango da helburua lortzea. Hizkuntzarekin lotura zuzena ez duten faktoreak izan arren, hizkuntzazko helburuak landu ahal izateko oso ondo aztertu eta landu behar dira jarduerarekiko motibazioak eta jardueraren intentsitatea.

ZER EGIN

Erreferente bidez baliatzea

Demagun, talde batean gazteek ez dutela euskaraz egiteko ohiturarik, baina hezitzaileari euskaraz erantzuten diotela. Euskaraz gehiago erabiltzeko beraienez erakargarria den erreferente bat ekarriko dugu: kirolari ezagun bat, DJ bat... Erreferente horrek jardueran parte hartuko du gazteekin harremanetan egon dadin (tarte askotan zentro izan dadin) eta euskararen erabilera sustatu dezan elkarriketen bidez.

Erreferenteak guztia euskaraz egingo die gazteei. Gazteentzat erakargarria denez, pertsona horrekin komunikatzeko ahalegina egingo dute, eta, gainera, motibazio instrumentalean ere eragina izango du jardueraren erakargarriagoa bihurtuko baitu. Tresna hau erabili ahal izateko, jardueraren intentsitatea ertaina izatea nahikoa da, gazteei ez baitaie erabilerari dagokionez ahalegin handiegia eskatzen.

atzeko atetik



Asisko URMENETA

IRUDIGILEA

2005ean sakelako telefonoa zuen europar bakoitzak, batez beste, 40 mezu inguru bidali zituen hilero.

Azterketen arabera, 23.000 milioi mezu trukatuko dituzte euro-parrek hilero hamar-kadaren amaierarako. Hazkuntza ikusgarri horren bultzatzaile nagusiak 10 eta 15 urte arteko gaztetxoak izango dira.



eurei dagokie

matrikula itzazu PARTAIDEko ikastoletan



zur



z m

u

l tu




h t
ut n h tz



m k k r

h zkuntz k



In l s , fr nts s ,
l m n t t l r
urrun k



tut r tz r k n



S rtu www.h ru.c m w un n

urr r

n h rr



DEKONTA L M K ISTE IN
ET KE KET S L

W L VENT L M K ISTE IN
UNIV D ES E INVESTIG DI N